ARGIA

ZALDIBAR ARGITU GABE URTEBETE

“Euskal oasiaren distirak ez digu uzten ustelkeria ikusten”

Ahoztar Zelaietarekin elkarrizketa

24-29.orriak

#2.718 | 2021 / 01 / 31 | 3,90 €

Kubak badu txerto nazional eta publikoa

10 | COVID-19

Uhin artifizialen parkea Donostian?

32 | AZPIEGITURA HANDIAK

LARRUN #259
Klimak badu arraza

19,5 €

%100 kotoi organikoa

Kolore berriak!

Bost kolore aukeran:
Urdina, beixa, arrosa, berdea eta grisa.

Lurra herriari deika

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin, nekazaritza eta gizarte eredu bat bultzatzen ari gara. Beraz, jatea bihur dezagun egunean hiru bider egiten dugun plazerezko iraultza!

Erosteko: argia.eus/azoka 943 37 15 45

Agroekologia mugimendua
eta ARGIA elkarlanean

Kamiseta erosita, 2 €-ko **ekarpena egingo diozu agroekologia mugimenduari** eta beste hainbestekoa ARGIAri.

ARGIA

2.718 zenbakia | Urtarrilak 31, 2021

Panorama

04 | ASTEKO ARGAZKIA
06 | AKTUALITATEA
08 | EKONOMIAREN TALAIAN
09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO IRUDIA:
"ZALDIBAR ZONA 0" LIBURUAREN AZALA. DISEINUA: ESTEBAN MONTORIO / TXALAPARTA.

Iritziak

19 | IKER IRAOLA ARRETXE
20 | ANE ABLANEDO LARRION
21 | JOSE IGNAZIO ANSORENA
21 | ITZIAR BARDAJI GOIKOETXEA
22 | AINGERU EPALTZA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

40 | DENBORAREN MAKINA
41 | ARGIA KOMUNITATEA
42 | BIZI BARATZEA
48 | KULTUR-KRITIKAK
51 | DENBORA-PASAK
52 | ARGI-KONTRA: SARA GONZALEZ
53 | BERANDUEGI

10 | **KUBA: COVID-19ARENTZAT TXERTO PUBLIKO NAZIONALA**
Net Hurbil atalean Pello Zubiriak azaldu du Kuban nola egingo dioten aurre aurten COVID-19ari: bertako laborategiek osasun sistemarekin elkarlanean txerto publikoak garatu dituzte eta txertaketa kanpainetan duten esperientziarekin, Kuba izan daiteke bere herritar guztiak txertatuko dituen munduko lehen herrialdea. Sozialki eta osasun burujabetzaren ikuspegitik, eredugarri.

Elkarrizketak eta erreportajeak

14 | PERTSONAIA | BAKARNE ATXUKARRO
"Gizonek idazten dute historia eta gauzak beren erara kontatzen dituzte"
Reyes Ilintxeta

24 | INGURUMENA | AHOZTAR ZELAIETA
"Gustatzen zaigu futbol jokalarien alineazioak jakitea, baina ez gure enpresenak"
Estitxu Eizagirre Kerejeta

30 | GIZARTEA | TXIMURKA
Musika nota eraldatzaileak Gasteiztik
Zigor Olabarria Oleaga

32 | AZPIEGITURA HANDIAK
Surf park bat Donostian?
Lander Arbelaitz Mitxelena

35 | EUSKARA
Elkarrizketa elebidunek funtzionatzen al dute?
Malen Aldalur Azpillaga

38 | HISTORIA
Mendigatxaren 'uskarazko' gutunak, herritarren esku
Urko Apaolaza Avila

44 | KULTURA | FEMINISMOA ZINEMA JAIALDIETAN
Aldaketa erradikalak ala "garbiketa arrosa"?
Ainhoa Gutiérrez del Pozo

46 | KULTURA | 2019KO ARGITALPENAK
Zenbat balio du euskarazko liburugintzak?
Peru Iparragirre

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Jone Markuleta, Lander Arbelaitz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus
Telefonoa
943371545
Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:
antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

UTZI AUZOA BAKEAN
ERASO SEXISTARIK GABEKO HIRI BATEN ALDE
ES RESPONSABILIDAD DE TODXS ACTUAR CONTRA LA VIOLENCIA SEXISTA
ZIPAIO

Herriaren zaintza?

Espainiako Auzitegi Nazionalean bi gazte zigortzeko frogen artean Euskal Presoak Euskal Herrira ikurra aurkeztu du Ertzaintzak pasa den astean. Hori ez du "Madrilek aginduta" egin. Donostian hainbat egunez gertatu dena ulertzeko, ez dugu bulego urrunetara begiratu behar. Ertzaintzako sindikatuek, Teleberrik eta Jaurlaritzak esandakoek gaia lanbrotu nahi badute ere, ekuazioa erraza da: jotzera tiro egiten duen Poliziak herritarrei hezurrak hausten badizkio, gertatutakoa ikertu beharko litzateke. Eta ez hooligan itsuen antzera, lehen segundutik, "gure poliziak" onenak eta gazteak arduragabeak direla esatea. Hori ez die kanpoko inork agindu, nahi eta ahal dutelako egiten dute. Cabacas auziaren zigorgabetasuna gogoan. Hamarkadetan ondutako Ertzaintzaren polizia eredu militarizatu, opaku eta bortitzak bere horretan jarraitzen duelako. Irudian: Jende asko bildu zen larunbatean Donostian Ertzaintzaren jarrera salatzeko.

DANI BLANCO AXIER LOPEZ

TRUMP KARGUTIK KANPO EGOTEAK LASAITZEN BAZAITU, EZ ESKERRAK EMAN BIDEN EDO DEMOKRATEI. ESKERRAK EMAN ANTIFAXISTEI ETA ANTIARRAZISTEI ALARMA GOIZ JO ETA GORANTZ ARI DEN ESKUIN MUTURRARI AURRE EGITEAGATIK. GOGORATU BORROKAN BIZIRIK ATERA EZ ZIRENAK

@outlivethemnyc

ADI, EUSKAL OASIKO ENTXUFATU GUZTIAK TXERTATZEN BADITUGU, GEHIEN TXERTATZEN DUTEN ERKIDEGOETAKO BAT IZATERA IGARO GAITEZKE

@ikerarmentia

-E! TS, TS, HAISU! TXERTOAK DITUT, NAHIDUSU?

@jozulin

EGIA ESAN BADA ZORTE TXARRA EUSKO JAURLARITZARENA: HAIEK DENA ONDO ETA BESTE GUZTIOK DENA GAIZKI

@txerren

Espainia, tortura salaketak ez ongi ikertzeagatik zigortua

ARGIA

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak urtarrilaren 19an ebatzi du Espainiak ez zituela Iñigo Gonzalezen tortura salaketak behar bezala ikertu. Espainiak 20.000 euroko kalte ordaina eman beharko dio Gonzalezi. Guardia Zibilak sei kide atxilotu zituen 2011ko operazio hartan, Ekineko kide izatea egotzita eta horietatik bostek torturak salatu zituzten. Gonzalezen tortura salaketaren aurretik, operazio hartan atxilotutako beste bi kideren salaketa aintzat hartu zituen Estrasburgok: Patxi Arratibel eta Xabier Beortegirena.

Patxi Arratibel, Iñigo Gonzalez, Iker Moreno, Gorka Zabala, Xabier Beortegi eta Gorka Mayo atxilotu zituen Guardia Zibilak Grande-Marlaska epailearen aginduz 2011n. Haietako bostek torturak salatu zituzten (Gorka Mayo izan zen torturarik salatu ez zuen bakarra) eta zehazki Iñigo Gonzalezek salatu zuen kolpeak, poltsa bezalako metodoak eta bortxaketa simulazioak jasan zituela.

Arratibelen eta Beortegiren salaketak Estrasburgoraino heldu ziren, eta Giza Eskubideen Auzitegiak tortura salaketei sinesgarritasuna aitortu eta bi kasu horietan Espainia zigortu zuen, salaketak ez ikertzeagatik. Orain hirugarrenez zigortu du Espainia, polizia operazio horren baitan: Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ebatzi du Espainiak Europako hitzarmeneko hirugarren artikulua urratu duela, alegia, ez zituela behar bezala ikertu Gonzalezek salatutako torturak. Gonzalezek berak esana da: “Negarrez nola torturatu ninduten kontatu nionean, beste aldera begiratu zuen Marlaskak, tramite hutsa banintz bezala”.

Espainiako Estatuak 20.000 euroko kalte ordaina eman beharko dio Gonzalezi, “kalte moralengatik”, hiru hilabeteko epean.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Literatura, zertarako?

ARITZ GALARRAGA

Aurreko zutabean nahiko argi geratu zitzaidan literaturak zer ez lukeen egin behar, autorearen tesi bat frogatu; baina zer egiten duen, "bizitza deskribatzen du", lausoegi geratu zitzaidan, zabalegi. Literaturak bakarrik egiten du hori? Musika, zinema eta gainerakoek ez dute bizitza deskribatzen? Ba al dago oraindik, Italo Calvinok defendatzen zuen bezala, literaturak soilik eman diezagukeen gauzarik? Halako galderen aurrean, Antoine Compagnonen liburu batera jo ohi dut, *La littérature, pour quoi faire?*, zeinak jasotzen duen Collège de Francen eman zuen lehen mintzaldia, 2006an.

Literaturaren lekua asko urritu da gure gizartean azkenaldian, baiki, aisian, eskolan, prentsan, ez du garai bateko garrantzirik. Lehiatzaileak ditu alde guztietatik, eta ez du ezeren monopoliorik. Baina, ze demonio, konprobatuta daukat, jarraitzen du plazera ematen, eta irakasten, hobeki, erakusten; eguneroko bizitzaren mugak gainditzen ditu, hizkuntzaren hutsak emendatzen; ematen du giza esperientziaren inguruko ezagutza ordezkaezin, xehe, luze-zabal bat; eta egiten du, egia borobilak jaulki ordez, gure ziurtasunetan zalantza, anbiguotasuna, galderak ereinez. Irakurtzen dugu, beraz, ezinbestekoa ez izan arren, bizitza atseginago, argiago, aberatsagoa egiten duelako, errazagoa bizitzea. E, baina inolako moralinarik gabe, ezagutzen baitut ezer irakurtzen ez duen jendea, eta batzuek zoriontsuak dirudite. Nik argi daukat, ordea, zergatik irakurtzen dudan: kontxo, ez irakurtzeak baino on gehiago egiten didalako. Eta lehiatzaileak ditu alde guztietatik, ez du ezeren monopoliorik; baina literaturak alde dauka umiltasuna, eta bere ahalak jarraitzen du izaten neurririk gabea.

Orain aste pare bat eman zuen Compagnonek azken mintzaldia Collège de Francen. Pandemia lagun, zuzenean jarraitu nuen. Liburuan atera dezaten desio nuke, lehen mintzaldi harengana bezala, behin eta berriro itzuli ahal izateko. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"BADIRUDI, GAINERA, JUSTIFIKATUTA ETA GUZTI DAGOELA NIRI GERTATUTAKOA"

NAHUEL GOMEZ RODRIGUEZ, ERTZAINAREN TIROAREN BIKTIMA

San Sebastian eguneko istiluetan, tabernari honi lanetik etxera zihoala hautsi zioten matrail hezurra ertzainek, foam bala bat aurpegira botata. "Oso-oso azkar gertatu zen eta ez nuen ezer ikusi. Notizia horiek guztiak hurrengo egunean ospitalean ikusi nituen eta irakurri nituen. Tartean, ertzain batzuei '*Vamos a tirar a dar, vale?*' esaten entzuten zaiena. Ez dakizu nolako amorrua, nolako inpotentzia... Sua nabaritu nuen barrenean. Badirudi, gainera, justifikatuta eta guzti dagoela niri gertatutakoa. Ondo iruditzen zaie, benetan? Ikaragarria". **ARGIA.EUS (2021/01/24)**

EKONOMIAREN TALAIAN

Jesús Fernández Naves

JUAN MARI ARREGI

Jende askok uste du ekonomia zenbakiak, estatistikak, multinazionalak, enpresak, enpresariak eta bankariak baino ez direla. Aitzitik, gertatzen da ekonomiaren oinarria gizakia dela, gizartea, herriak, bertako langileak. Eta zutabe honetan azken ikuspegi horretatik aztertzen saiatzen gara.

Horregatik gogoratu nahi dugu hemen lagun bat: Jesús Fernández Naves. Ekonomia horren alde borrokatzeko moduaren eredu izan zen, pertsonen, gizartearen, herrien eta bertako langileen zerbitzura. Jesús duela gutxi hil da Gasteizen, 86 urte zituela, alzheimerrarekin urte gogorrak izan ostean. 1976ko martxoaren 3an Fraga eta Martín Villaren agindupean poliziak Gasteizen egindako sarraskiarekin amaitu zen grebaren ordezkari ezagunenetako bat izan zen. Bost grebalari hil eta zauritu ugari eragin zituen eraso hark.

Jesús antikapitalista zen guztiz. Eta horregatik, antiliderra, internazionalista eta antimilitarista ere izan zen. Kapitalismoak eragiten zituen arrakalez jabetuta, berdintasuna defendatu zuen, beti lidergo pertsonalen aurka, beti langileen batzarra borrokarako eta antolatzeko metodorik onena zela sinetsita.

Jakitun zen herriak, elkartuta daudenean eta solidarioak diren heinean askatzen direla, horregatik praktikatu zuen etengabe internazionalismoa. Erabat bakezalea, gerren etsaia, Gasteizkoak talde antimilitaristako sortzaile eta kide ere izan zen, bai baitzekien armak direla kapitalismoaren negozio handienetako bat.

Bere bizitza, eredu eta umiltasunarekin, Jesúsek arrastoa utzi du Argentinan, Chiapasen, Gasteizen eta beste herri askotan, eta batez ere euskal langileriarengan. Jesús, lagun eta lankide, agur eta ohore! ●

ANALISIA

Euskalgintza eraldatzailea, den-dena irabazteko

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Jakitun baldin bagara euskararen normalizazioan 30 urte atzera egiteko arriskuan gaudela, galde genezake ea instituzio publikoek sentitzen al duten presio eraginkorrik hizkuntza politikan salto kualitatiborik emateko. Euskaraldiaren bultzatzaile gisa, adibidez, Eusko Jaurlaritzak lehen edizioaren aurkezpenean hitz eman ostean bigarren edizioan erakunde gisa konpromisoak hartuko zituela, ETB2, Osakidetza, Ertzaintza edo Hezkuntza sailak bere gain dituen instituzioak euskararen biziberritzearen ardura berriz ere herritarren gainean jarri du lotsagorritu gabe.

Euskaraldia ez zen ongi hasi: hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimenaren bezperan, euskara doan ikasteko eskubidearen aurka bozkatu zuen EAJk Eusko Legebiltzarrean, PSE, PP eta Voxekin batera. Izugarrizko muturrekoa milaka euskaltzalerentzat eta oso esanguratsua Jaurlaritzari Euskaraldian zentralitatea eman dion euskara elkarteen Topagunearen isiltasuna afera honetan. Zubigintzaren ajeak?

Egoera honetan, egiteke dagoen lana da hizkuntza politikak erabakitzen dituztenekiko independentea den subjektu euskaltzalea indartzea eta herriz herri antolatzea. Sumatzen dira mugimenduak edo bide berri horretan ekarpena egiteko gogoak, izan zenbait gaztek Gaztealdiaren bidez euskaraz bizitzeko hautu politikoa aldarrikatzean, edo zapalkuntza bistaratu asmoz erasoen pedagogia egiteko sortutako Euskaldunok Planto ekimenean. Norabide horretan, ezkerretik eta independentismotik euskalgintza berrasmatzeko Plaza Hutsa gogoeta oso emankorra suertatzen ari da. Abiapuntua zorrotza da: nola elikatu elkar euskarak eta burujabetza prozesuak? Eta hauxe Sorturen tesia: jauzi bat behar da hizkuntza politikan eta euskalgintzak herri mugimendu gisa arnasberritzeko bide berriak behar ditu.

Euskal Herriko eragilerik potenteena den eta gizartean aldaketarik sakonena eragiten ari den mugimendu feministak urteak daramatza bidea erakusten euskalgintzari, gizonez beteriko sektore euskaltzale ugarik entzungor egin arren: hizkuntz zapalkuntzaren kontzientzia politikoa landu, euskaldunen ahalduntzea bilatu, erasoen aurrean autodefentsa praktikatu, botere harremanak eta pribilegioak bistarazi, mugimendua herriz herri josi eta kalera atera, beste borrokekin zubiak eraiki, etengabeko analisi politikoa landu, bizitza eta zaintzak erdigunean jarri... eta horrekin guztiarekin batera, teoriek lur hartzen duten borroka konkretuak aukeratu.

Azken puntu honi dagokionez, ezin aipatu gabe utzi euskara doan ikasteko eskubide unibertsalaren aldeko borrokak duen potentziala. Sektore sozial ugari inplikatzeko daukan planteamenduagatik –euskaltzale militanteak eta euskaltegietako ikasle eta irakasleak, adibidez–, baita klase eta genero irakurketa begibistakoak egin daitezkeelako edo tokian toki borrokatzeko aukera ematen duelako ere. Baina batez ere, utopia bat marrazteaz gain, leku askotan lor daitekeelako eta jende askoren bizitzak goitik behera alda ditzakeelako. ●

USTELKERIA TXERTAKETAN

BILBO. Bilboko Basurtuko eta Santa Marina ospitaleetako zuzendari kudeatzaile Eduardo Maizek eta Jose Luis Sabasek dimititu egin dute, ELA sindikatuak jakinarazi ostean Basurtuko ospitaleko zenbait kargudun COVID-19aren aurkako txertoa hartzen ari zirela, beren karguak ematen zien boterea baliatuz. Osakidetzak bazekiela salatu du gero Sabasek. Bai Maiz, baita Sabas ere, EAJko afiliatuak dira eta Eusko Jaurlaritzan eta Bilboko Udalean ibilbide politiko zabala egindakoak.

BESTE MUNDU BAT

20.000

lagun baino gehiago elkartu ziren Munduko Foro Soziala deituriko lehen ekitaldian, duela 20 urte. Davosen munduko elite ekonomikoak egin ohi duen foro neoliberalari erantzunez, "beste mundu bat posible" dela aldarrikatu zuten. Aurten, mundu osoko eragileak biltzen dituen foroak martxa birtual erraldoia antolatu du.

Frantziako Gobernua, epaitegiko aulkian

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Lau talde ekologistek duela bi urte abiaturiko prozesua auzitegietara iritsi da: Frantziako Gobernua epaitzen ari dira Parisko Epaitegi Administratiboan, klima aldaketari aurre egiteko agindutako neurriak ez betetzea leporatuta. Epaia hilabete bukaeran iritsiko da eta Gobernuaren aurkakoa izatea aurreikusten da, baina gehiago izango du sinbolikotik, benetako zigorretik baino.

AUZIA

Greenpeace, Oxfam, Nicolas Hulot Fundazioa eta Notre affaire à tous talde ekologistek bi milioi sinadura lortu zituzten, Gobernua epaitegiko aulkira eramateko. Leporatzen zaiona: CO2 isuriak murrizteko agindutakoa ez duela bete. Gobernua errudun joko dutela aurreikusten da, baina ministro publiko edo fiskalak eskatzen duen zigorra da "kalte moralengatik" talde ekologistei euro bana ematea eta isuriak murrizteko borondatea erakutsiko duten dokumentu berriak aurkeztea.

AURREKARIA

"Mendeko Auzi" gisa ere izendatua izan denarekin pozik dira talde ekologistak. Agintariek promesa berde ederrak egiten dituztela baina sistematikoki ez dituztela betetzen frogatuko duela diote, baita ere aurrekaria izango dela herritarrek eta beste elkarteek kalte-ordainak eska diezazkioten Estatuari.

IÑIGO CABACAS. Espainiako Epaitegi Gorenak ez ditu onartu Iñigo Cabacasen senideen eta zigortutako ertzainaren errekurtsoak. Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren epaia berresten du Gorenak: ertzain bakarra izan zen zigortua Cabacasen heriotzagatik.

EPAITEGIAK. Eibar futbol taldeko jokalari zirela, Sergi Enrich eta Antonio Lunak bideo bat egin zuten, emakume batekin sexu harremanak izaten. Haren baimenik gabe grabatu eta zabaldu zuten bideoa. Bi urteko kartzela-zigorra ezarri die epaileak eta beraz, ez dituzte espetxean sartuko.

KULTURA. Kultur esparruan aritzen den jendeak eta kulturak kezkatzen dituen herritarrek bat eginik, "Plateruena eta gero zer?" dinamika abiatu dute. Durangoko Plateruena Kafe Antzokia berriz irekitzeko aukerak aztertuko dituzte. Herriaren beharren diagnostikoa egingo dute lehenik.

COVID-19

KUBATAR GUZTIEK UDA AURRETIK HARTUKO DUTE TXERTO NAZIONAL ETA PUBLIKOA



ACN

2021eko uda aurretik bere populazioaren zati handi bat txertatuta eduki dezake Kubak, COVID-19aren kontra, jadanik proba klinikoen bigarren fasean sartuta daukan 'Soberana 02' txerto publiko eta nazionalak bere bidea normaltasunez burutzekotan. Horrekin lezio berri bat emana izango dio munduari: herrialde txiki batek nola zaintzen duen bere osasun burujabetza.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Urtarrilaren 6an albiste agentziek zabaldu zuten Kubak Iranekin sinatu duela tratua, COVID-19arentzako txerto berriaren proba klinikoak uharteko herritarrez gain Asiako herrialde hartakoetan ere burutzeko. Bi albiste zeramatzan bere baitan hitzarmenak: bat, Kuba txertoak ekoizteaz gain, bioteknologiazko produktuok esportatzeko gai dela; eta bi, uhartean jende gutxiegi dagoela koronabirusaz kutsaturik –beren zorionerako– txertoen proba klinikoen hirugarren fasea osorik uhartean burutu ahal izateko.

Egun batzuk lehenago, abendu amaieran, Miguel Díaz-Canel lehendakariak bisita egina zien Habanako Finlay Txerto Institutuko ikerlariei, kubatarren esker ona publikoki adierazteko; haien lana dela medio Kuba izango delako "Hirugarren Munduan honelako txerto baten ekoizpena hain aurrera eraman duen herrialde bakarra". Ez hori bakarrik: nazio bakarra izango da herritar guztiei ezartzeko txertoa %100ean baliabide publikoz finantzatu eta ekoiztuko duena.

Osasunerako Mundu Erakundearen arabera, 2021eko urtarril hasieran munduan prestatze prozesuan diren 237 txerto proiektuetatik sei jada gobernuren batek ontzat eman eta jendeari ezartzen hasiak ziren, beste sei onartzeko bidean zeuden, eta 64 gehiago proba klinikoetan abiatuta. Azken hauetatik bigarren eta hirugarren faseetan sartutako hamabien artean dago Kubaren Soberana 02 izenekoa –eta Soberana 01-a ere lantzen segitzen dute–.

Finlay institutuaren aipatu bi txertoez gain, Kubako Ingeniaritza Genetiko eta Bioteknologia Zentroak beste bi gehiago lantzen ditu, urtarrilaren 18an lehen faseko proba klinikoak gainditu dituztenak, Abdala eta Mambisa izenekoak. Balentria handia, Euskal Herriak halako lau biztanle edukita (11 milioi jende) gutxi gora behera gurea adinako

LEHENDAKARIAREN ESKERRAK
Diaz-Canel lehendakaria –erdian–, abenduaren 28an, Carlos J. Finlayko ikerlariei txertoarekin egindako aurrerapenengatik zorionak emateko egindako bisitan.

ACN

Barne Produktu Gordina daukan uharte txiroarentzako: Kubaren BPG 100.000 milioi dolarrekoa zen 2018an, Ipar Euskal Herria barik, EAE eta Nafarroarenak batuta 90.000 milioi dolarrekoa 2016an.

Kuba txertoetan aurreko puntan ibiltzea ez da kasualitatea, horrelako teknologia ez baita bi egunetan inprobisatzen. Gaiaren xehetasun interesgarriak eman ditu Fabrizio Chiodo immunologo italiarrak berriki Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitateko Ana Iglesias Mialareti eskaini dion elkarrizketan. Doktoregoa Donostian egina omen den Chiodo, Habanako unibertsitatean irakasle aritzeaz gain, Italiako Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseiluan ere badago eta parte hartu du Soberana 01 eta Soberana 02 txertoen ikerketa eta proba klinikoetan.

Chiodok azaldu duenez, teknologiari dagokionean, txerto kubatarrak kokatzen dira txerto zaharren multinazionalek azken teknologia genetikoetan oinarritutako belaunaldikoen arteko mailan. Duela urte gutxi arte txertoak egiten ziren bezala, indargabetutako birusak erabiliz hartzailearengan erantzun immunitarioa eragiteko, gaur Pfizerrek eta Modernak landu dituztenak bezalako azken belaunaldikoak oinarritzen dira manipulazio genetikoetan eta birusen osagai genetikoak injektatzen dituzte hartzailearen zelulei, irakatsi diezaieten birusen proteinak sortu eta immunitatea esnarazten. Bi belaunaldien arteko erdibidean omen daude, beraz, Kubak ekoizten dituenak, eta orain arte proba klinikoetara iritsi diren COVID-19aren kontrako txertoen herena, Proteina-subunitatezko txertoak deituak –AEBetako Novamaxena, Errusiako Vector Instituterena eta abar–.

Ikerlari kubatarrek COVID-19aren kontrako txertoak lantzeko erabili dituzte aurretik uhartean sortutako beste txerto batzuen birus-proteinak. Sobe-

rana 01-ean B meningokokoarentzako txertoarena darabilte, azken hogei urteotan uharteko haurrak immunizatzeko eta beste hainbat herrialdetara esportatu izan dutena. Soberana 02-ren kasuan, tetanoaren birusaren proteina bat erabili dute, aurretik egin izan duten bezala beste txerto batzuekin, hala nola B gripearen kontrakoarekin. Chiodok dioenez, bi txerto berriok hozkailu arruntetan kontserbatzen ahal dira, izozte berezien beharrik gabe (merkatura atera duten lehena, Pfizer-BioNTechena -70ºC-tan dago gorde beharra), horrek koste eta azpiegituretan dakartzan abantailekin. Habanako agintariek espero dute Soberana 02-ak apirilerako gainditzea proba klinikoen hirugarren fasea eta uztailerako uharteko herritar guztiak txertatu ahal izatea.

Chiodok azpimarratu du jabegoa ez farmaziako multinazionalena baina publikoa izatearen garrantzia. Bera kubatarrekin hasi omen zen lanean hauen txertoak direlako munduan %100 publikoak diren bakarrak: "Beti pentsatu nuen maiteko nuela egunen batean lan egitea farmaziari dagokion guztia publikoa daukan herrialde bati laguntzen. Ikasle nintzela esaten ziguten proba kliniko bat egitea ezinezkoa zela munduan farmaziako enpresa batekin ez bazen. Salbuespen bakarra aipatzen ziguten: Kuba".

BOTIKETAN ERE BURUJABE IZAN NAHIAN

"Pfizer eta burujabetasuna: Kubaren COVID-19aren kontrako txertoak kontrapuntu interesgarria jartzen dio AEBetan Pfizerrek garatutakoari" artikulu interesgarrian gaiaren testuingurua azaldu du Naomi Schoenfeld antropologo iparramerikarrak *Medical Anthropology Quarterly* aldizkarian.

Hasteko, ez da kasualitatea Soberana txertoen sorburu den institutuak Finlay izena edukitzea: Carlos J. Finlay zientzialari kubatarrak erakutsi zuen XIX. mendean Sukar Horia gaixotasuna Aedes aegypti eltxoak sartzen diola gizakiari. Finlay institutua 1934tik ari da txertoak sortu eta ekoizten, baztangaren, tifusaren, tuberkulosiaren, errabiaren eta tetanoaren kontrakoak...1970eko hamarkadan bioteknologiaren jaiotzarekin txertoen ekoizpena arras aldatu zenean, Kuban alor hau lantzen hasi ziren Kari Cantell zientzialari finlandiarrarekin elkarlanean. Cantellek asmatu zuen nola sortu Interferon botika –gaur ere farmazeutika kubatarren izarretakoa dena– giza leukozitoetatik abiatuta, baina nahiago izan zuen ikerketan eskuratutako ezagutza partitzea hura patentatzea baino... zientzialari eskuzabala bera!

Zoriak nahi izan zuen interferona Kuban bertan nola ekoiztu aurkituta berehala denge gaixotasunak agerraldi berria egitea uhartean, 116.000 gaixo ospitaletara eramanaz. Bioteknologian ari zirenek osasun sistemari –biak dira estatuarenak– eskaini zioten interferona probatzea dengearen kontra, eta hortik abiatu zen ikerketaren eta osasun arretaren arteko integrazio estua, gaur egun ere uhartearen beste ezaugarrietako bat dena.

Interferonak irekitako bidetik, hura bezala immunitate sistema modulatu nahi duten beste mila molekula baino gehiago patentatu eta ekoiztu dituzte bai Kubako Ingeniaritza Genetiko eta Bioteknologia Zentroak eta bai Finlay Institutuak: hainbat interferon, B hepatitisaren txertoa, B meningitisaren txertoa... Azken hau famatua egin zen 1980 hamarkadan Brasil, Argentina, Kolonbia eta Uruguain zabaldu zen B meningitis agerraldia kontrolatzen lagundu zuenean.

> Lau txerto dauzka Kubak bidean: Soberana 01, Soberana 02, Abdala eta Mambisa

Naomi Schoenfeldek uste du, "Txertaketaren politika: historia globala" liburua aipatuz, gobernu batek bere txerto propioak ekoizteko ahalmenak sendotzen duela burujabetza nazionala eta horregatik txertaketa kanpainan parte hartzen dutenentzako erremedio nazional horren arrakasta edo porrotak eragina daukala jendearen herri kontzientzian.

TXERTOA, BOTIKEN ARTEAN POLITIKOENA

Schoenfelden hitzetan eta modu orokorrean hartuta, txertoak izaki farmazeutiko benetan politikoak dira: "Zientifikoki ezarri zaizkion helburuetatik askoz harago eragiten dute. Izenetik hasita, babesa iradokitzen dute. Adierazten dute ezagutza tekno-zientifikoa, higienea, aginte medikua. Tresna bat dira kudeatzeko populazioak, politika, pribilegioak eta baita bortxa ere. Balizko arriskuen kontrako aseguru gisako bat dira. (...) Txertoak aldaketa handiak eragiten ditu populazioetan, ekonomian, politikan, gizartean, eta baita immunitatean ere".

Txertoen politikotasun horrek berekin daramatza kontraesan handiak, zeren eta aurrerago aipatu abantaila eta promesen ifrentzu gisa, txertoaren kontrako jarrerak ere piztu ditzake hainbat jenderengan, botika horiek lan egiten dutelako gu baitan baino gehiago gure bitartez, geure immunitate sistema zirikatu eta lanean jarriz. Txertoen kontra osasun, etika, ekologia edo politika argudioetan oinarrituta dauden pertsonez gain, antropologoak nabarmentzen ditu minoria arrazializatuetakoak –ondo ezagutzen duen AEBetako kasutik abiatuta–: "Jende beltzak mesfidatzen dira txertoez, historian zehar etikarik gabeko esperimentu medikuetarako erabili dituztelako; haientzako estatuaren bortizkeria irudikatzen dute".

Txertoekiko oso bestelako esperientzia omen daukate Kubako jendeek. "Hemen txertoak sortu dira herrialdeak daukan bio-farmazia estatalen 'ekosistema itxian', hots, hasi ikerketatik eta osasun sistema nazional unibertsaleraino hartzen duen ekosisteman. Honetan funtsezkoa da politika eta zientzia integraturik edukitzea, argi egon dadin herritarren interesak direla nagusi eta ez enpresen interesak. Zientzia eta politikaren integrazio honek Kuban lortu du birusari aurre egin eta bi txerto abiatzea. Uharteko ekonomia lur jota dagoenean, estatu sozialistak jarraitzen du bere zaintzaile lana egiten eta horregatik da hain garrantzizkoa txerto subirano horiek ere garatzea garai zail hauetan. Alde horretatik esan dezakegu Soberana horiek direla COVID-19aren aurkako txerto sozialistak".

Bere aberastasunari begiratuta gezurra dirudien arren, justu kontrako egoera ikusten du antropologoak –Kalifornian bizi denak– AEBetan. Hemen txerto kanpainaren arrakasta lotuta egongo da dosiak erosteko ahalmenarekin. Zientzia eta politikaren arteko harremanak Kubakoen erabat alderantziz daude eraikita, ororen gainetik interesek eta

BOLUNTARIOAK
Sonia Perez Rodriguez doktorea txerto berrien proba klinikoan parte hartzen duen boluntario batekin hizketan.

etekinek garrantzia handiagoa dute jendeen osasunak baino.

Multinazional iparramerikarrek lortu duten arren beren txerto txapeldunekin munduaren horniduraren zati nagusiaren jabe egitea, AEBek ez daukate ez osasun sistema unibertsalik eta ezta eskualdeka antolatutako koordinaziorik, milioika jende bizi da asegururik eta zaintza arautu barik; eta horrek guztiak esan nahi du masako txertaketa sekulako buruhaustea bihurtuko dela.

"Kubak –dio Schoenfeldek–txertaketan daukan historia ezagututa, Soberana txertoak prest daudenean denek dakite txertatuko dituztela eta hori egiteko lana erraza izango da: *business as usual* [betiko moduan]. Aldiz, AEBetan *business as usual*-ek esan nahi du 'zientzian sinesten duten jendeek' izango dutela moduren bat txertoa eskuratzeko, eta askok lortu beharko dutela osasun programa nazionalik ezean eskueran daukaten ordezkorik onenaren bidez: gure Walgreen eta Walmart hipermerkatuetan lortu beharko dute ([merkealdietako publizitateetan dioten moduan] 'txertoak agortu bitartean', 'eskaintza ez baliagarria 50 estatuetan', 'ikusi baldintzak', 'baliteke beste eskaintzekin bateragarriak ez izatea'...)".

TXIROEN OSASUNAZ NOR OROITZEN DA?

COVID-19ak munduko gainerako ikerlariak bezala Kubakoak ere ezustean harrapatu zituen, Finlay institutuko zuzendari Vicente Vérez Bencomok *Telesur* kateari kontatu dionez. Osasun agintariek neurri zorrotzekin uhartean birusaren lehen agerraldia maiatzerako kontrolatu zuten arren, jabetu ziren hurrengo olatua zetorrenerako prestatu beharra zeukatela. Bioteknologian ari diren profesionalen zorionerako, mundu osoan milaka zientzialari COVID-19aren ikerketan murgilduak ziren eta pandemiaren osagai eta ezaugarriez lortutako jakintza hein handi batean publiko egiten zuten.

Maiatzean Díaz-Canel lehendakariak deitu eta ikerlariei eskatu zien beren bilaketa lanen abiadura azkartzeko, Kubak bere txertoa behar zuelako. Lortu zuten ohiko epeak murriztea, hein handi batean mundu osoko zientzialariek libre zabaldutako informazioei esker, eta abuzturako prest zeuzkaten hautatutako formulazioaren bi dosi. Lehen dosiok ikerketaren bi arduradun nagusiek hartu zituzten beren soinetan. "Horrekin bi helburu lortu nahi genituen –dio Verez Bencomok– batetik, erakutsi arduradunok konfiantza geneukala lortutako emaitza horretan, eta bestetik, gure buruak bihurtuz txertoa probatzen bi lehenak, lortzen genuen baldintza zientifiko eta etiko zorrotzak eskatzen dituen prozesuan jauzi bat egitea, proba klinikoetan are azkarrago sartzeko".

Abuzturako bazekiten kubatarrena ez zela izango munduan erregistratuko zen lehen txertoa –multinazional handiek iragarri zuten lehen txertaketak urte amaieran hasi ahalko zirela– baina Verez Bencomok helburutzat aipatzen zuen herrialde hau izatea bere herritar guztiak txertatzen lehena –guztiak eta doan–. Munduko beste jende asko ere bazeuzkaten buruan: "Txertoak azalduko direnean, populazioak immunizatzen lehenak munduko herrialde aberatsak izanen dira. Bai txerto horien prezioengatik eta bai munduan 8.000 milioi herritar garelako, ezin da pentsatu denak txertatuta egongo direnik 2021an. Kubatarrontzako solidaritatea ez da soberan daukazuna eskaintzea, daukazuna ondokoarekin partitzea baizik eta gure ametsa litzateke urte bukaerako gurekin batera munduko, eta bereziki Latinoamerikako beste herritar asko ere txertaturik egotea". ●

Gizalabak

Bakarne Atxukarro

EMAKUME BIOGRAFIEN BILTZAILEA

“GIZONEK IDAZTEN DUTE HISTORIA ETA GAUZAK BEREN ERARA KONTATZEN DITUZTE”

Kazetaria da eta, gainera, haurrentzako nahi dituen ipuinak aurkitu ezinik, horiek idazteari ekiten dion ama. Euskal mitologia eta emozioez gain, historian barrena isilpean gelditu diren emakume bide urratzaileen biografiak biltzeari ekin dio azkenaldi honetan.

REYES ILINTXETA DANI BLANCO

Kazetaritzak ekarri zintuen Irundik Iruñera?

Bai. Ikastera etorri nintzen. Egia esan karrera amaituta aukera izan nuen Irunera itzultzeko, aita kazetaria nuen eta publizitate arloan berarekin lan egin nezakeen, baina nahiago izan nuen Iruñean geratu, probatzeko eta baita amodio kontuengatik ere.

Kazetari gazteen baldintza prekarioak ezagutu zenituen bete-betean, ezta?

Hala da. *Ezkaba* aldizkarian hasi nintzen publizitatean eta erredakzioan. Ondoren *Vivir en Barañain* eta EGN enpresak Nafarroa osoan egiten zituen beste aldizkari txiki askotan ere aritu nintzen. Menperatzen ez nituen gaiez idaztea egokitzen zitzaidan askotan. *Ribera alta* aldizkarian, adibidez, Azkoienen, nire lehen lana zezenketen orria egitea izan zen, eta nik ez nekien ezer. Club taurinora joan nintzen eta eskatu nien, mesedez, laguntzeko nik ez nuelako ideiarik ere. Urtetan Tafalla, Cadreita… herri askotan ibili nintzen. Garai hartan udal ia guztiak UPNkoak ziren. Euskara erabat arrotz egiten zitzaien eta erredakziora deitzen zutenean galdetzen zuten ea “la Carmen” bazegoen.

Hasieran Erriberan ate guztiak itxita nituen, eta tematu nintzen lortu behar nuela errespetua eta areago maitasuna. Jende honek ikusi behar du euskaldunak jatorrak garela, pentsatu nuen. Eta nolabait lortu nuen. Ni haientzat nintzen *“la vasca pero maja”*. Modu berean lortu behar dugu jende guztiak ikustea emakumeok baditugula indar-gune asko mundu hau hobea egiteko.

Gustura ibili nintzen zortzi urte eta erdi inguru. Gero Canal 4 telebistan eta COPE irratian publizitatean eta erredakzioan egin nuen lan.

Nik beti esaten dut hau afizio poli-

Bakarne Atxukarro Estomba

IRUN, 1974

Kazetaritza ikastera Iruñera joan eta bertan gelditu zen. EGN Comunicación taldeko aldizkari txiki askotan, COPE irratian eta Canal *4* telebistan aritu ondoren, Barañain Auditorioko komunikazio arduraduna izan zen hamar urtez. Gaur egun Iruñerriko Mankomunitateko komunikazio bulegoan egiten du lan. Seme bizkiak jaiotzean hasi zen haurrentzako ipuinak idazten: *Euskal Mitologia I* eta *II*, *Tartalo, Basajaun, Olentzero eta Mari Domingi*, *Sumendi bat baratzean* eta *Lekim* liburuen egilea da Izaskun Zubialde eta Asun Egurzarekin elkarlanean. Historian izan diren ezagutu beharreko emakumeen inguruan bi lan argitaratu ditu: *Sarerik gabe* eta *Gizalabak*. Bigarren honetan Euskalerria Irratian azken hiru denboralditan eginiko kolaborazioak bildu eta QR kodeen bidez testuak eta irratiko podcastak uztartu ditu.

Bidasoa eskualdeko idazleen Oskarbi Kultur Elkarteko presidentea da.

Martxoan helduentzako bere lehen eleberria kaleratuko du, honetan ere emakumeen ahalduntzea ardatz hartuta. Euskaldunberria eta hiztun bikaina.

ta dela eta ogibide kaxkarra. Miseria hutsa da, baina horretan gabiltzanok gustukoa dugu eta hori da gure kondena. Nik ez dakit besterik egiten.

Barañain Auditorion hamar urte pasatxo komunikazio bulegoan eta orain Iruñerriko Mankomunitean. Nolakoa da komunikazio instituzionala?

Oso anitza. Hemengo lana ez da bakarrik prentsa oharrak idaztea. Nik Barañainen kartelak egiten nituen, artistekin hitz egin, sare sozialak kudeatu, aurkezpenak, egitarauak antolatu... Eta orain eko-blog batean idazten dut, barneko komunikazioa, sare sozialak, prentsaurrekoak, asanbladak eta erakundeekiko harremanak kudeatzen ditut.

Nik beti oso kontuan hartzen dut pertsonekiko hurbiltasuna. Nire ustez kazetariak umila izan behar du eta beti egon behar du ikasteko prest. Eta ezinbestekoa da istorioak kontatzea gustukoa izatea, noski, azken finean hori baita kazetaritza. Honengatik ere bilatzen ditut aukerak nire gustuko gauzak liburuetan kontatzeko.

Nola hasi zinen idazten?

Betidanik egin izan dut niretzat oso terapeutikoa delako. 10 urterekin idatzi nuen nire lehen ipuina eta ahizpari oparitu nion. 14rekin nobela bat idatzi nuen barruan nuena ezin nuelako bestela erakutsi eta semeak jaio zirenean ikusi nuen gauza pila zeudela esateko eta irakasteko, eta ipuinak bide ezin hobeak direla horretarako. Nik ez ditut istorioak sortzen. Inguruan begiratu eta ikusten dudana kontatu baino ez dut egiten.

Etxean harreman estua izan dugu beti mitologia eta kondaira zaharrekin, baina semeek, ordea, ez zekiten Ama Lurra nor den edo eguzki loreak zertarako jartzen diren etxe atarian. Haientzat nahi nituen ipuinak ez nituen aurkitzen eta gauza bera gertatzen zitzaion nire lagun Izaskun Zubialde irakasle irundarrari. Horregatik hasi ginen idazten. Duela sei urte izan zen hori. Berehala ikusi genuen inguruko jendeak ere nahi zituela euskal mitologiari buruzko gure lanak irakurri, baina autoediziorik egiteko dirurik ez genuenez Amazonen jarri genuen dena doan deskargatzeko moduan eta hizkuntza desberdinetan. Pasada bat izan zen eta hiru egunean 12.000 deskarga izan genuen. Abenduan izan zen hori eta urtarrilean, toki pila batean agertu ondoren, Denonartean argitaletxea harremanetan jarri zen gurekin liburua plazaratzeko. Guk ez genuen ezer espero, horregatik etorri den guztia oparia izan da guretzat.

Handik gutxira EHUrekin hitzarmen bat sinatu genuen haiek gure lanen ingelesezko itzulpenak egiteko eta bertsio horiek ere asko mugitzen dira interneten. Ondoren mitologia ipuin gehiago, Tartalo, Basajaun eta Olentzeroren liburuak idatzi eta argitara emateko aukera izan genuen Denonartean eta Txalaparta argitaletxeekin. Hurrengo urtean mitologia sail honetako laugarren alea aterako dugu. Oso harrera ona izan dute eta sei urte pasata, aurten ere Durangon dezente saldu dira, adibidez.

> ***“Hasieran Erriberan ate guztiak itxita nituen, eta tematu nintzen: jende honek ikusi behar du euskaldunak jatorrak garela. Eta nolabait lortu nuen. Ni haientzat nintzen ‘la vasca pero maja’”***

Balioak eta emozioak ere landu nahi ditugu eta horrela idatzi genituen *Lekim* eta *Sumendi bat baratzean*. *Lekim* nire seme Mikelek sortu zuen. Txikitan beti esaten zuen haserretzen denean suzko bola moduko bat sentitzen duela barruan eta hori kanporatzeko nahiak oihu eta zalaparta egitera bultzatzen duela. Nik hobeto ezin dut azaldu.

Eta emakumeen gaiari zergatik heldu zenioten?

Hori ere oso modu naturalean sortu zen. Izaskunek alaba nerabe bat dauka etxean eta hasi ginen pentsatzen zer egin genezakeen gazteei genero berdintasunaz eta norberaren buruaz harro sentitzeaz hitz egiteko. Horrela sortu zen *Sarerik gabe. Historiak emakume izena dauka,* Euskadi Sarietan finalista izatera iritsi zen lana. Bada garaia anonimotasunean dauden historia egin duten emakume asko historiaren barruan lekua izaten hasteko. Gure inguruko emakumeak bildu genituen, izenez ezezagunak kasu askotan, baina

beren garaian garrantzi handia izan zuten gauzak egin dituztenak.

Emakume horiei egindako omenaldia da liburu hau eta, aldi berean, iraganeko edozein garai hobea izan zela uste duten gazte guztiei egindako arreta dei bat.

Inma Shara orkestra-zuzendaria, Ainhoa Arteta sopranoa, Maialen Lujanbio bertsolaria edo Bixenta Mogel euskarazko lehen idazletzat jotzen dena dira liburu honetako protagonista batzuk. Baina badira ere profil anonimoak, hala nola herri oso bati jaiotzen lagundu zion emagin batena, edo gerrako espioi bat, edo aduanetako agente bat…

Ez da ahaztu behar gizonek idazten dute historia eta gauzak beren erara kontatzen dituztela. Liburu honek esan nahi die neskei ez dela beharrezkoa munduan emakume ezohikoen bila ibiltzea, haietako bakoitza ezohikoena delako. Haien burua balora dezatela nahi dugu.

Eta orain *Gizalabak* kaleratu duzu. Zer da lan hau?

Euskal Herriko eta kanpoko beste hainbat emakumeren biografiak landu ditut azken bi denboraldietan, astero, Euskalerria Irratian. Marie Curie, Virginia Wolf, Kattalin Agirre, Greta Thunberg… Antzinako emakumeak eta egungoak. Emakume bitxiak eta paregabeak. Orain, konfinamenduan, paperera ekarri ditut hauen guztien istorioak itzalpean ez geratzeko eta lau haizetara hedatzeko helburuarekin. Irratiko podcastak eginak zeudenez, liburuarekin lotu ditut QR kodeen bidez. Gainera irratirako opari moduan egin nahi nuen. Haiek nigan jarritako konfiantza eskertu nahi nuen eta horregatik diru etekin guztiak irratirako izango dira.

Emakumeen bidea ez da batere erraza izan baina pixkanaka badoa. Historian zehar gizonezkoek kontatu izan dute beti egin dutena eta emakumeok, aldiz, egiten duguna ez dugu adierazten. Baina gauzak aldatzen ari dira, aldatzen ari gara. Lehen emakume indartsuak gizonak bezalakoak irudikatzen ziren, baina titiekin eta orain, aldiz, konturatzen ari gara indar-gune sendo eta propioak ditugula eta agerian jarri behar ditugula.

Zeintzuk dira?

Nik uste dut sentiberatasuna eta beste ikuspuntu bat emateko gaitasuna. Oro har praktikoagoak gara, baina, aldi berean, sentimenduak bazterrean utzi gabe jokatzen badakigu. Babes emaileak gara eta barruko mundu aberatsa dugu. Ez dut esaten gizonak baino gehiago garela, baina gutxiago ere ez. Emakumeak beti aldatzen ari gara, bizitzan zehar etapa desberdin asko izaten ditugu eta hori gizonei ez zaie berdin gertatzen. Beti kontuan hartzen ari gara gauza pila bat eta hori ona da. Halere ez dut uste lehiaketa bat egin behar dugunik zein den hobea demostratzeko. Guztiok beharrezkoak eta onak gara.

Ni hasi naiz emakumeei buruz idazten konturatu naizenean emakumea naizela. Orain arte nire lanean igualtsu izan naiz, baina orain gizonen mundu batean ari naiz eta konturatu naiz ni emakumea naizela. Horregatik hitz egiteko premia sentitu dut eta nire ustez hori ez da ona. Gabezia hori konpondu beharra dago. Gizonek ez dute haiei buruz hitz egiteko beharrik sentitzen. Hor falta da zer edo zer. Administrazioan, enpresetan daudenak gizonak dira, baina aldatzen ari da eta beste biderik ez dago. Pixkanaka

hasiko gara igotzen. Nik ez nuke kopiatuko gizonek pentsatutako mundua, nik uste dut gure ahalmen propioak ditugula. Tresna berberak ezin ditugu erabili eta denon artean lortu behar dugu mundu hobe bat, ez batzuk besteen kontra jarrita.

Feministatzat hartzen duzu zeure burua?

Nik ez, baina batzuek halakotzat hartzen naute. Nik ez dut emakume izatearen kontzientziarik, eta horretaz konturatzen naizenean haserretu egiten naiz, norbaitek gogorarazi didalako. Denok pertsonak gara eta kito. Pertsona xume langile bat eta ama bat besterik ez naiz ni.

> ***"Lehen emakume indartsuak gizonak bezalakoak irudikatzen ziren, baina titiekin eta orain, aldiz, konturatzen ari gara indargune sendo eta propioak ditugula eta agerian jarri behar ditugula"***

Etorkizunari begira, zein da emakumeon erronka nagusia?

Belaunaldi berriei hau dena transmititzea, baina dena ez dago gure esku. Konfinamenduan izututa gelditu naiz ikustean nola joan garen atzeraka. Emakumea berriro gelditu da etxean ardura handiekin, familia, etxea, zaintza, lana, ikasketak.... Den-dena guretzat. Konfinamendua ez da guztiontzat berdina izan eta hori serio pentsatu beharra dago.

Amazonekin plazaratu duzu azken liburu hau eta horregatik kritikatua izan zara...

Niretzako penagarria izan da batzuek eman duten erantzuna. Nik liburu hau egin nuen irratiari aukera hau eman izana eskertzeko asmoz eta bide batzuk arakatzeari ekin nion. Zailtasun handiak topatu nituen lehen unetik. Auto-ekoizpena egiteko zuk aurreratu behar duzu dirua, liburuak gordetzeko biltegi bat behar duzu eta salmenta puntuak bilatu. Ni ezin nintzen horretan sartu eta ezin nion irratiari lan hori eman. Gainera irabazi guztiak irratirako izan zitezen nahi nuen. Argitaletxe batekin lan egiten baduzu %10 baino ez duzu jasotzen eta gainera ez da batere erraza lortzea zure lana kaleratzeko prest egon daitekeen norbait. Hau dena ikusi ondoren, errazena Amazonen aukera iruditu zitzaidan. Jendeak on-line deskarga dezake lana nahi duenean eta paperean hartu nahi izanez gero etxera bidaltzen diote 15 euroan. Konfinamendu egoera honetan ez zitzaidan gaizki iruditu eta gainera diruaren heren bat irratira zuzenean bideratzeko aukera ematen zidan. Horregatik guztiarengatik erabaki nuen Amazonera igotzea. Nire intentzioa ona zen. Badakit Amazon orain deabrua bezalakoa dela, baina gauza onak ere baditu. Har ditzagun gauza onak, geure inguruko dendak eta zerbitzuak ahaztu gabe. Nik ez dut batere gustukoa Amazonen eredu zapaltzaile hori, baina konfinamendu honetan erabili dut eta nik bezala jende askok, eta onartu beharra dugu.

Pertsona batzuek zailtasun horiek guztiak eta arrazoi horiek guztiak ikusi nahi ez izateak penatu nau. Gaizki ikusten dut kritika hutsean gelditzea, batere irtenbiderik eman gabe. ●

Naziometroaz

IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Abenduan Euskal Herriko soziologiarentzako eta, oro har, gizarte zientzien arloko ikerketentzako tresna baten berri izan genuen; Naziometroa, hain zuzen. Urtean bitan argitaratzen joango den inkesta honek Euskal Herri osoa du ikerketa eremu, eta Telesforo Monzon eLab Laborategiaren eta EHUko Parte Hartuz ikerketa taldearen elkarlanaren ondorio da, Aztiker ikergunearen esku-hartzeaz gainera. Euskal Herriari buruzko analisiak egin nahi dituen edonork dakien bezala, lehenengo arazoa nazio mailako datuen gabezia da. Horren aurrean, maiz azterlanak administrazio eremu txikiagoetara mugatu behar dira, eta beste askotan Espainiako eta Frantziako markoetan egiten dira. Beraz, Euskal Herri mailako datuak eskura izatea berri pozgarria da.

Lurralde osoko datuak aldi berean jasotzeaz gain, baina, Naziometroaren ekarpen nagusia gaiari gerturatzeko modua da. Euskal Herriaren etorkizun politikoari buruzko ikerlan soziologikoak egon badira, Araba, Bizkai eta Gipuzkoara mugatuta batez ere. Baina Naziometroak subiranotasunari buruzko azterlanetan ekarpen nabarmena suposatzen duela uste dut. Areago, Naziometroak azken urteotan Euskal Herriko independentismoari buruz zabaldutako ikuspegi ezkorrak zalantzan jartzeko materiala mahai gainean jartzen digula esango nuke. Jendartean nagusitzen diren iritzi ildoak, noski, ez dira naturalki zabaltzen, eta gizarteko sektore guztiek ez dituzte haien ikuspegiak hegemoniko eta nagusi bilakatzeko ahalmen berdinak. Zentzu horretan, datu hotzetan oinarrituta baino, helburu politiko zehatzei loturik zabaldu izan dira azken urteetan Euskal Herriko independentzia zaletasunari buruzko ikuspegi ezkor eta are katastrofistak ere. Ziur aski, ezkortasun giro horretan, hedabide eta korronte politiko zehatzen jardunari, Euskal Herrian azken hamarkadako aldaketa politikoek sortutako *erresaka efektua* gehitu behar zaio: urte luzetako gatazka gordinaren ostean, independentismoaren ildo desberdinek egoera berrira egokitzeko bizi izan duten –eta bizitzen ari diren– prozesuaz ari naiz.

> Lurralde osoko datuak aldi berean jasotzeaz gain, baina, Naziometroaren ekarpen nagusia gaiari gerturatzeko modua da

Naziometroaren lehen inkestako datu zehatzei dagokienez, azpimarratzekoa da Euskal Herria "independizatzeari" buruzko jarreraren eta euskal –edota nafar– estatu bati buruzko erreferendumean hartu beharreko jarreraren artean dagoen aldea. Hori da inkesta honen berritasunetako bat, eta aurrera begira adi egoteko gaia dugu. Izan ere, Euskal Herria independizatzearen (ekintza gisa adierazita, eta ez helburu politiko gisa) aurka agertu da gehiengoa (%46); baina, aitzitik, erreferendum adostu batean baiezkoak irabaziko lukeela (%43 alde, eta %32 aurka) ikusi dugu aldi berean. Iruditzen zait, Hego Euskal Herrian bederen, independizatzearen ekintza Kataluniako prozesuarekin, eta momentuz bizi duen porrotarekin, lotzen dela garaiotan.

Naziometroa arakatuz aurkitzen dugun beste gai deigarri bat Nafarroa Garaiko datuak ditugu. Herrialde horretan, erreferendum adostu batean euskal estatuaren alde %26k (eta aurka %54k) egingo lukeen bitartean, nafar estatu bati buruz galdetuta, baiezkoa %35era iritsiko litzateke. Aurkakoak gehiago izaten jarraituko lirateke (%43), baina aldeak oso modu adierazgarrian murriztuta. Gai hau nabarmentzekoa da, euskal estatu baten alde egiten duten guztiek ez baitute nafar estatu baten aldeko jarrera erakusten, adibidez. Edonola ere, hurrengo txostenetan jarraitu beharreko gaia da, Euskal Herriko gatazkan, Europako beste kasu ugaritan ez bezala, lurraldetasuna korapilo zentrala baita. ●

Euskal heziketaz, berriz ere

ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

ANTTON OLARIAGA

Ondorengo lerroetan, euskal hezkuntza-sistemari buruz iritzia ematera natorkizue, *euskal eskola publiko* delakoaren aldeko (batzu)ek *ikastola*-ren kontra beste behin abiatu duten erasoak sortutako zalapartaren harira, edo aitzakian. Eztabaidak, ez dizuet ukatuko, aspertu egiten nau. Eztabaidak, edo eztabaidaren mailak. Nondik heltzen zaion, zer markotatik aztertzen den arazoa, zer argumentu (ahul) erabiltzen den erasoei aurre egiteko, edo nondik eta nora egiten diren ika-mika klasiko hau gainditu ahal izateko proposamenak.

Hala ere, edo beharbada horrexegatik, nik ere nahi dut eztabaidara nire gogoetatxoa ekarri. Nahiz eta oso oinarrizkoa iruditzen zaidan zuei esateko daukadana, benetan. Hainbeste non batere argi ez dudan zer ote den sentitu beharko nukeena. Lotsa, honezkero gauza jakina beharko lukeena aportazio izan daitekeela pentsatzeagatik. Ala etsipena, honezkero gauza jakina beharko lukeena oraindik aportazio dela jakiteagatik.

Ea, has gaitezen guziok batzen gaituen baieztapenetik. Denak gara euskal eskola publikoaren aldekoak, horretan dudarik ez da. Arazoa da ez daukagula, ez dela existitzen, eta are okerrago dena, ezinezkoa izanen zaigula gure mendekotasun egoerak iraun bitartean, burujabetza faltaren ondorio zuzena baita funtsezkoak diren esparruen gaineko eskumenik ez edukitzea, eta arlo horietarikoa baita, noski, hezkuntzarena. Herri batentzat hil ala biziko kontua da belaunaldi gazteagoen heziketa diseinatu ahal izatea, herri horren biziraupena baitago jokoan, besteak beste. Orduan, galdera serioa: benetan pentsatzen al du inork gure esku utzi duela Espainiak maila horretako eginkizun baten gaineko autoritatea?

Izen horixe hartzen badu ere, ez da benetako euskal eskola publikoa orain eta hemen ezagutzen duguna. Baina tira, Eusko Jaurlaritza ere euskaldunon gobernua ez den bezalaxe, edo legebiltzarra gure legeak egiten diren benetako tokia ez den bezala, ez dakit nola esan. Ez da geure beharrei erantzuteko euskaldunok sortua den heziketa, Espainiak beretzat eraikitakoaren bertsio autonomikoa baizik. Euskarazko izenarekin emana, hori bai, eta euskaraz. Baina asimilazioaren amua gozoki irentsi dezagun, besterik gabe. Eta sakonkiago barneratu, mezua.

Ikastolak, Euskal Herriaren eskola nazionalaren funtzioa betetzeko pretentsioarekin sortu ziren. Hezkuntza-sistema propioaren hutsunea orain baino agerikoagoa omen zen, Espainiak eta Frantziak ez zuten orain bezainbeste kamuflatzen beren heziketaren bitartez gurean benetan lortu nahi zutena, eta oraindik gai ginen arroztasunak zekartzan arriskuei usain hartzeko. Nonbait, ez genuen orain bezain kaltetua erreakzionatzeko gaitasuna, eta indartsu genuen geure burua babesteko beharrezkoa den sistema immunea. Kontua da, gai izan ginela hezkuntza-sistema propio baten hazia ereiteko, noiz eta lehen frankismoaren garaietan.

Burujabetzarako bidean, baina, ez da ekimen-gaitasun hutsa aski. Garaipenak fite behar dira nazio-estrategia politiko orokorrago baten baitan txertatu, etsaiak hartu eta beretzat kapitalizatuko ez baldin baditu, ikastolen ibilbideak ongi erakutsi digunez. Orain, ez dut uste diferentzia handia egongo denik Orioko ikastolan edo Orioko eskolan ikastearen artean. Ez eta ere, berdina izango denik Berako ikastolan edo Hendaiako ikastolan haur batek ikasiko duena. Azkenean, administrazio berdinetan daude maila batean edo bestean integratuta, eta estatu berdinek dizkiete kontuak eskatzen, akademikoak, ekonomikoak, eta bestelakoak. Hori da tranpa.

Utz ditzagun errazak diruditen borroka partzialen bideak, antzuak baitira. Eta heldu diezaiogun erresistentzia eta askapen nazionalaren bide seguruari. Energia horretan baino xahutu ez dezagun, ez du-eta merezi, sinetsi iezadazue. ●

Etxegabeak

JOSE IGNAZIO ANSORENA
TXISTULARIA

Donostian bada *Infernua* deitzen den auzoa. Erdigunetik urruti, azken urteetan lantegi hutsez josia. Hantxe bizi izan dira etxerik gabeko pertsona ugari. Zorte txarrak zulora erori arazitakoak, paperik gabeko etorkinak, adikzio hainbatengatik bazterrean geratutako asko... Ehun inguru ziren. Baina udalak plangintza onartu zuen auzoa eraberritzeko, pabiloien jabeek haiek hustu nahi eta, epaitegiak aginduta, Ertzaintzak denak kalera bidali zituen. Beste aterperik ez zuten horiek *Infernu* -tik ere bota dituzte.

Ez dira desagertu ordea. Batzuk urrutira joan dira, baina beste batzuk, hirian sakabanatu. Hainbatek nahi luke, borragoma hartuta, mapatik ezabatzea. Edo ikusiko ez diren lekuetara bidaltzea: zikinak direlako, gaizki hezitakoak, mozkortu egiten direlako... Ikusgaitz bihurtu ezin direnez, ez ikusiarena egiten diegu. Agian horrek ematen die minik handiena. Etxedunontzat ez dira inor, ez dira ezer.

Taldetxo bat gure lantokiaren atarian egokitu da, Konstituzio Plazako arkupeetan. Euritik babesten die, baina azken hotzaldietan, ez zen gaua egiteko leku ona. Pedro Mari Otañok *Zeru txiki* esaten zion gure herriari. Hauentzat, *Infernu handi*-aren azpiko sotoa. Inongo eskubiderik ez dute. Hortik ere inoren dingilidangen puntak agintzen duenean, beherago bidaliko dituzte, estoldetara, arratoien kide.

Etxea izateak sendotasuna ematen du bizitzan, familiak bezala: leku segurua edozeren aurrean eta edonoiz. Horregatik da horren garratza familia eta etxea tortura edo gehiegikeria iturri bihurtzen direnean. Elkar hartzeak beharrezko duen irudi amankomunean, etxea izan zen ganboatar eta oñaztarren arteko liskarretatik ateratzeko asmakizuna eta mendeetan salbagarri gertatu zitzaigun. Ohi bezala, horretatik batzuk mokadu handiegia hartzen hasi ziren arte. Hori bai txertorik gabeko izurritea.

Jabetasun pribatuaren eskubideak jatorriz ahulak defendatzea zuen helburu. Inork bizitzeko txokoa bilatu, atondu, apailatu, txukundu ondoren, beste norbaitek, indartsuago edo krudelago zelako, ken ez ziezaion. Berehala irauli zen. Batzuk ase ezinak ziren. Mokadu handia harrapatu arren, beti gehiago nahi. Hori, ordea, ez da eskubidea, lapurreta baizik. Eta gure antolaketa sozial-ekonomikoak horretan du euskarri nagusia.

Nerea Arrienek gaztetxoentzat nobela egokia idatzi du: *Etxegabetuak*. Aproposa larre handian hazitako gure nerabe askorentzat, bizitzan behar beharrezkoa den gupida-justizia sentimendua lantzen has daitezen.

Juduen esaera: "Gizakumea pentsatzen, Jainkoa barrez". Ez da beti egia. Sarri, Infernutik botatakoen kasuan bezala, negarrez ari da. ●

Txertatuak lubakian

ITZIAR BARDAJI GOIKOETXEA
IRAKASLEA

NBEk adierazpen bat egiten duenean, pentsatzen dut herrialde aberats bat edo batzuk gehiegikeriaz jokatzen ari direla, pertsona zaurgarri ugariren bizitza dagoela tartean eta NBEk ez duela egoeran eragiteko botererik. NBEk salatu du herrialde aberastuek txertoak bere gain hartzeko arriskua dagoela. Herrialde pobretuetara ez direla iristen ari.

Beldurraren doktrina hainbeste hilabetez eta hain monopolio basatian –hedabidetan, politika instituzionalean, kalean, edonon– jasan, irentsi eta barneratu ondoren... zer iritzi eta erantzun sorrarazten zaio gorputzean hiritar on arduratsu edozein bati? Ez al du entzungo, hasieran harrituta, barneko ahots bat, politikoki oso deserosoa, "Bai, bueno, ez luke horrela izan behar baina gu geureaz kezkatzeko momentuan gaude"?

Zein erantzun gorputzean "pateran datozenak txerto gabe datoz eta arriskutsuak dira herrialde atzeratu zikinetatik datozelako" kanpaina mediatikoa martxan jartzen denean? Europa lubakituaren harresiak are gehiago blindatzeko legea aldatzen denean? Beldurrak elkartasuna izozten du, faxismoarentzako opari baliagarri eta funtzionala. ●

Ezin da

AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Ezin da idatzi garai hartan zer gertatu zen, dena txikitzea litzatekeelako, zubi denak erretzea”. Joxean Larrañaga ‘Urko’-ren hitzak dira, *Berria* egunkarian berri-berrikitan egindako elkarrizketa batean. Joan den mendeko 80ko eta 90eko hamarkadez ari da kantari donostiarra, urte horietan ezker abertzaleak –ezker abertzalearen zati batek, nahiago bada– zenbait euskal sortzaileri, musikariei batez ere, egindako jazarpen ankerraz. “Proskritoak” deitzen ditu bera eta bere egoera berean zeudenak.

Imanol Lartzabal kantariaren kasua da ezagunena. Ez bakarra. Xabier Letek pairatu zuena oroitarazi ziguten joan den urtean, haren heriotzaren hamargarren urteurrena dela-eta plazaratu diren lanetan. Oroitarazi bai, baina sobera nabarmendu gabe, haren biografiaren bertze pasarte batzuen gisara (Joxan Artzerekin bezala, lotsa-emangarri bide zaio hainbati bizitzaren azken urteetan Lete kristautasunera itzuli zela jakitea). Hainbertze urteren ondotik, zauria itxi ez den seinale.

> Berradiskidetzea hitz handixkoa izanagatik ere, zekenenak ere onartzen du zenbat irabazi dugun indarkeria politikoak gure artean pizten zituen zatiketa eta ika-mikak ehorztearekin

Ikusi noraino darion materia, Larrañagak berak nahiago baitu gai horretaz ez luzatu. Uko egiten dio xehetasunak emateari. “Ezin da idatzi garai hartan zer gertatu zen”. Ongi irakurri duzue, ezin da. Eta arrazoitu egiten du: “Dena txikitzea litzatekeelako, zubi denak erretzea”. Isiltasuna, bakearen amoreagatik.

Atxagak iragarri zuen *La pelota vasca* film gogoangarrian: “ETAren jarduna hain zaigu pisua, ezen, desagertzen denean, hegaz egiten ahalko baitugu”. Hegaz, ez dakit; egia da euskaldunon arteko giroa ikaragarri aldatu dela azken 20 urteetan. Berradiskidetzea hitz handixkoa izanagatik ere, zekenenak ere onartzen du zenbat irabazi dugun indarkeria politikoak gure artean pizten zituen zatiketa eta ika-mikak ehorztearekin. Kulturaren esparruan, inon baino nabarmenago.

Itsu batek ere ikusten du. Zubiak zutitu dira berriz. Aiseago aritzen gara elkarlanean. Hobeki bizi gara, erosoago. Nola ez gaitu, bada, izularrituko duela 30-40 urteko garai latzetara itzultzen ahal garela pentsatze hutsak? Bide berri eta eztiagoak bidesaria badu, ordea: ahanztura. Bazterrak harrotu nahi ez badituzu, ez harrotu sobera iragana. Ez ekarri gogora puteatzen ninduten/zintugun garaiak. Ezin da horietaz idatzi, mintzatu, eztabaidatu. Memoria historikoa? Aukeran, nahiago ez.

Isiltasun hitzarmen bat dugu, isilpekoa. Normala da. Ulergarria da. Agian ona ere bada. Ez uka pixka bat tristea ere badela. ●

2021a urteurren borobil ugarirekin dator: 500 urte Noaingo batailak, 150 urte Parisko Komunak, 100 urte Sobietar Batasunak M8 emakumearen egun izendatu zuela, 25 urte Itoiz urtegiko kableak moztu zituztela edo Hondarribiko alardean emakumeak lehen aldiz atera zirela, 20 urte Al Qaedak AEBetako Dorre Bikien aurkako atentatuarekin mundua aho bete hortz utzi zuela.

Aurtengo formula baliatuz,
egunero efemeride bat
eskainiko dizugu datorren urtean ere, burujabeak garenez,
historia guk ere idatz dezagun.

AZOKA.ARGIA.EUS
943 37 15 45

10€

+4€ BIDALKETA GASTUAK

Eskuratu

ARGIA **EGUTEGIA**

Gustatzen zaigu futbol jokalarien alineazioak jakitea, baina ez gure enpresenak

Ahoztar Zelaieta

"ZALDIBAR ZONA 0" LIBURUAREN EGILEA

Ahoztar Zelaieta Zamakona ikerketa kazetari zailduak Zaldibar auziaren atzean dauden izenak agertarazi ditu Txalapartarekin plazaratu duen liburuan. "Euskal oasi"ko biztanleok ez gaitezen iragazkaitz izan ziri-ziri edo zarra-zarra ari duten ingurumen eta ustelkeria delituekin.

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA DANI BLANCO

Zerk eraman zintuen gaia ikertzera?

Niretzat Zaldibar ez da arrotza, zeren aita mallabitarra da, berton apaiz izandakoa. Guk Mallabin Restaurante Hambre geneukan eta gure gainean putetxea zegoen. Eta bertatik pasatu dira hainbat politikari eta enpresari urte mordoskatan: Barinagaren izena ez zen arrotza Mallabin. Txikitatik ezagutu dut mentalitate hori ere: mendia diru bihurtzea.

Profesionalki, ikusi nuen ARGIA *Berria*k argitaratutako datuei oihartzuna ematen, *Berria* ARGIAkoei, *Gara Berria*ren inguruko informazioak ematen *Berria* aipatuz, *El Salto El Diario*k argitaratutakoa, *El Diario*k *El Correo*k argitaratutakoa, ARGIAk ere inoiz aipatu du *El Correo*, hark atera dituelako filtrazio batzuk... eta hori gustatu zitzaidan, esklusibitatea alde batera uztea: lanerako hori erakargarri egiten zitzaidan, ez nire ikerketari begira bakarrik aritzea, baizik eta administrazio publikoak isilpean gorde nahi zituen datuak kazetariek elkarbiltzea, bakoitzari bere meritua emanaz. Kazetarien lana izan da isilpean gorde nahi ziren informazio horiek azaleratzea.

Liburuaren hasieran aipatzen duzu zabor jauziak autopista itxi zuenean, zu ataskoan harrapatuta geratu zinela. Zein paretan zeunden?

Ez, hori pertsonaia da. Liburuari nobela itxura emateko asmatu nuen.



Arraioa! Ni naiz ni tuntun alaena, sinetsi egin dut...! Eta liburuan aipatzen diren iturriak ere fikziozkoak dira?

Mozorrotuta daude, euren intimitatea gordetzeko. Baina ez da fikzio ariketa hutsa, errealitatean oinarritutako pertsonaiak dira liburukoak eta gertatu zaizkidanak islatu ditut. Iturrietako bat den Naturaren Babeserako Zerbitzuko (Seprona gazteleraz) guardia zibil hori, ba bai, guardia zibila da, baina ez Sepronakoa. COVID-19aren konfinamendua baino lehenago hainbat egunetan Zaldibarra joan eta jendearekin hitz egiteko zortea izan nuen, ez naizelako gaurkotasunaren diktaduran bizi. Eta horrelako gauzak gertatu zitzaizkidan: kotxe bat jarraika izatea; edo Eitzaga auzoan Barinagaren familiako kide batekin hitz egiten ari nintzela kotxetik tipo bi irten, nik polizia nazionalaren itxura hartu niela esan, eta erantzutea: "Ez, ez, mafia dira", eta nire solaskidea hartu, izkina batera eraman eta galdezka hasi zitzaizkion, ea ni zertan ari nintzen, ea bera zer informazio pasatzen ari zitzaidan...

Liburuan aitortzen duzu damu moduko bat, orain arte ez diezulako ingurumen borrokei arreta handirik eskaini. Zure moduko ikerketa kazetari batentzat, zer elementu interesgarri gurutzatzen dira hondakinen gaian, Zaldibarren ikusi ahal izan denez?

"Euskal oasia"ren eredu miresgarri horrek nolako hutsuneak eta arazoak dituen azalarazi du Zaldibarrek: bezerokeria, ate birakariak, zerbitzu publikoen pribatizazioa, ustelkeria, gardentasun eza... nire buruan gai horiek ez zeuden ekologiari edo ingurumenari hain lotuta. Industriarekin, turismoarekin, zerbitzuekin, kontsultoreekin eta abar lotzen nituen gehiago. Zaldibarri buruzko ikerketarekin hasi nintzenean, konturatu nintzen parametro berdinak zeudela ingurumen arloko afera honetan. Eta ikerketa bukatutakoan konturatu nintzen liburua ez zela Zaldibarrez bakarrik, kudeaketa eredu baten ikerketa zela.

"Euskal oasia"ren kudeaketa ereduan ingurumena sartuta dago eta gauza oso larriak daude, ez Zaldibarren bakarrik. Horregatik ditu liburuak hainbeste eranskin amaieran, beste afera batzuk kontatuz: garrantzitsua delako ikustea Zaldibar ez zela anekdota bat, kudeaketa eredu baten ondorio baizik. Lazgarria izan den ondorio bat. Baina piramidearen harri koskor bat baino ez, larria, odolez gorritua. Esaten da langile bi hil direla, beste batzuek diote akabatu dituztela... Autopista bat afektatua izan da, gauza oso sakratua "euskal oasia"n.

> ***Zaldibar auzia, bai medioetan eta bai iritzi publikoan, oso fokalizatuta egon da senideen martirioan, eta ez, aldiz, ingurumenaren auzian***

"Euskal oasia"ren barruan hedabideek zer paper jokatzen dute?

Medio konbentzional oso handiek edo korporatiboek ez dute ingurumenaren arloko sailik. Gaia puntualki agertzen da. Ez dago kazetari espezializaturik, ez dago horretarako denborarik, gaurkotasunaren diktadura dela, prekarietatea...

Eta ustelkeriarekin gertatzen den moduan, ingurumenaren aferen izebergaren punta baino ez dugu ikusten. Ez bakarrik medioek ez dutelako delitu ekologikoengan arreta handirik jartzen, baizik eta Euskal Herriko iritzi publikoaren sentsibilitatea ere ingurumen arloko delituekin oso txikerra delako. Zergatik? Normalizatuta daudelako. Permeableak bihurtu gara haiekiko.

Mugimendu ekologista ere oso sektorializatuta dago, "dibortzioak" egon dira... erreakzioa edo sentsibilizazioa pizteko zailtasunak daude.

Ertzaintzak eta epaitegiek, ustelkeriaren kasuan bezala, oso erreminta kaskarrak dituzte ingurumenaren arloko delituen termometroa martxan jartzeko. Ez dago termometrorik, beraz, beti izebergaren punta ikusten dugu. Eta ondorioz, ez dago erregistro publikorik delituak ematen direla jakiteko, eta horrek ez du laguntzen sentsibilitatea pizten. Ingurumen delituak erregistratuko balira, aztertuko litzateke zein neurrikoak diren, zein eragin duten bizitzaren kalitatean...

Momentuz, Zaldibar auzia ere, bai medioetan eta bai iritzi publikoan oso fokalizatuta egon da senideen martirioan, eta ez, aldiz, ingurumenaren auzian. Eta

bai, langileen kontrako delitu bat da eta ikertu behar da, baina ez da ingurumenaren aurkako delituan fokalizatu, indar handiagoak baitaude atzean: administrazio publikoaren ardura subsidiarioa. Ingurumenaren aurkako delituetan, kode penalean biktimei "lausoak" esaten zaie, ezin baitira kuantifikatu izen eta abizenekin nortzuk izan diren biktimak, "herritarrak" dira, oro har. Orain akusazio partikularrak daude epaitegian eta ea lantzen duten pixka bat ingurumen delituen adarra.

Amurrion, Zaldibarkoa gertatu eta handik egun batzuetara, istripu bat jazo zen hondakin enpresa batean eta 24 urteko senegaldar bat hil zen. Horrekin ez da tintarik gastatu. Ez da natiboa, ez du bozkatzen, ez da alderdi politiko edo sindikatu batekoa, ez du harreman sozialik, ez dago "integratua" (gorroto dut hitz hori)... eta ez zen autopistarik afektatuta egon!

Ingurumen gaietan hariari asko tira eginez gero, topo egiten dugu gure herrietako lantegiekin...

Gustatzen zaigu futbol jokalarien hamaikakoak (alineazioak) jakitea, baina ez gure enpresen alineazioak. Izan ere, gure auzokideak dira, edo gure semearekin egin dute komunioa... Zaldibar auziak piztu du aspaldi baztertua zen eztabaida bat: batez ere etxeko hondakinen eztabaida zen nagusi, eta orain benetako eztabaida nagusia gailendu da, industria hondakinena. Eta hor interes oso handiak daude eta jende piloa nahastuta.

Politikoki ez zuzena izatearren, kamioilariak entzun ditugu esaten hara edozer gauza botatzen zutela, beraz, haiek ere ardura moral bat daukate. Zergatik ez dute alto egin? Ba noski, beren soldata eta beren lanpostua jokoan zeudelako. Bezerokeriaren muskulua hain da indartsua, salatzeko zailtasun handiak ditugula. Hala ere, txalotzen dut kamioilarien testigantza. Baina zulo horren nabarmentasuna, hainbat sektoretan "zulo" izena jartzerainokoa izan da: bai auzokideek, kamioilariek eta teknikari batzuek ere "zulo" esaten zioten. Zergatik ez zaio zulo horri aurre egin orain arte? Egon dira saioak, 90eko hamarkadatik politikagintzan eta herri mugimenduan. Baina ez da herri osoa biltzeko moduko mobilizaziorik egon, ez da egon artikulatuta.

Orain ere hiru jokaleku daude: herri mugimendua (Zaldibar Argitu eta abar) batetik, herri akusazioak epaiketan bestetik, eta hirugarrenik politikariak bai Europako Legebiltzarrean eta bai Eusko Legebiltzarrean egiten ari diren lana. Garrantzitsua litzateke hiru eszenatoki horiek gehi kazetariek egiten duten lana artikulatuta egotea. Eta ez dut hori ikusten. "Zaldibarri buruzko ikerketa kontsortzioa" izango litzatekeena. Kazetarien artean ere ez da sortu halakorik. Eta pena da, hori artikulatuta balego portu hobera helduko ginateke. Gainera, Zaldibarko bizilagunak ongi informatuta egongo lirateke, parlamentariak ongi sentsibilizatuta egongo lirateke, eta herri akusazioak biak elikatuko lituzke, aipatuz zer ikertzen ari den eta zer ez den ikertzen ari, eta kazetariei informazioak filtratuz iritzi publikora helduko lirateke eta ez soilik Zaldibar Argituko mobilizatuengana.

> *"Verterrentzat amiantoaren legezkotasuna tranpeatzen saiatu zen Amiantec enpresa kontratatu du orain Jaurlaritzak Zaldibar desamiantatzeko*

Zuk liburu honetan bai jarri dituzula enpresen hamaikakoak, jabeen izen abizenak. Beldurrik?

Batere ez, zeren eta hain da astuna informazio hori, apenas jende gutxik irakurtzen baitu. Pertsonalki afektatzen du, norberaren senide batzuei buruz ere ari baita liburua. Nire senideak ez daude ustelkeriatik salbu, batzuk murgilduta daude bezerokerian, alderdi politiko batzuetan dabiltza... nire lagunak, nire senideen lagunak, nire senideen senideak... herri hau oso txikia da. Horregatik, hemen aukera dago alineazio hori egin eta buruan izateko. Eta alineazio horrek ondorio larriak ekartzen ditu herritarren bizitza kalitatean, zerbitzu publikoen kalitatean, aurrekontuetan, zergetan eta abar.

Baina hainbeste arreta puntu daude egun eta hainbesteko abailan pasatzen dira arreta puntu horiek, azkenean ez garela benetan interesatu behar zaizkigun arreta puntuetan geratzen. Adibidez, Superkopako finalean Athletic-en hirugarren gola beltz batek sartzea pozgarria da baina hori ez da benetako arreta gune interesgarri bat, horrek ez du jendearen ogiaren prezioa markatzen. Aldiz, bezerokeriak sortzen dituen zuloek bai, horiek zerikusi handia daukate ogiaren prezioan. Baina horretaz ez dugu ohartu nahi.

Zure liburuan ezagutzera eman duzunez, 1998an Espainiako Gobernuak baimena eman zion Zaldibarko Udalari Eitzaga auzoan herri galdeketa egiteko, ea zabortegia jartzea nahi zuten edo ez. Aldiz, Udalak esan zuen Gobernutik ez zutela erantzunik jaso.

Hori ikertu behar da eta horretan dabiltza inplikatu batzuk, batez ere garai hartan oposizioan aritutako politikariak. Begiratu behar da ea Correosen posta zertifikatuaren idazkirik dagoen, jakiteko udalak jakinarazpena jaso zuen edo ez. Baina kontxo, arraroa egiten zait buletin ofizial batean publiko egin denaz udaletxeak ezer ez jakitea.

Honen berri eman nuenean lehen harrituak oposizio politikoa eta Zaldibarko auzokideak izan ziren, ez zekiten ezer. Espainiako Gorteetako buletinean aurkitu nuen datua, izan ere 2011n zerrenda bat argitaratu zuten, Gobernuak bere garaian zer erreferendum baimendu zituen azaltzen zuena.

Zabortegi hau irekitzeko seta handia izan zuten batzuek, herrian zeukan aurkakotasunagatik prozesua asko luzatu baitzen. Zein pertsona izan dira gakoak zabortegia ezar zedin?

Enpresari forestalistek, lurrak erosi zituztenek eta José Ignacio Barinagarekin batera Verter Recycling-en sorreran parte hartu zuten haiek garrantzia handia daukate. Navarro Murga eta Aizpiri 90eko hamarkadatik aritu ziren beste zabortegi batzuk kudeatzen eta zabortegi hau martxan jartzeko saioak egiten: Fortin SL enpresa forestalista sortu zuten lur sailak erosteko eta Verterren sorreran bertan akzionista bihurtu ziren.

Herri mailan EAJko alkate Igor Ormaetxea Arandok eta udal arkitekto Iskander Atutxak arau subsidiarioak aldatu zituzten eta proiektuak martxan jarri ahal izateko bultzada handia jaso zuen.

Patxi Sierra Susumaga Galdakaoko alkate ohia, alkate izateko inhabilitatua zegoen eta Administrazio Harremanetarako diputatu jarri zuten eta berak onartu zuen arau subsidiarioen aldaketa Aldunditik.

Herri mailan Javier Sánchez Martínez: Eibarko alkatearen idazkaria zen eta zituen harreman sozial onekin eragin handia izan zuen proiektuari indarra emateko. Sistema klientelistaren parte zen. Gainera, Verterreko akzionista zen eta Zaldibarko Udalean hainbat gestio egin zituen Verterren ordezkari moduan.

Iñaki Arriola bera, ezikusia egin baitzuen, Sánchez Martínezi konpatibilizatzen utzi zion bere idazkari eta aldi berean enpresa bateko kide izatea. Berak alkate bezala Eibarren hainbat proiektu sinatu zituen, Barinagaren edo Barinagaren senideen eraikuntza enpresek ejekutatutako zituztenak.

Eusko Jaurlaritzak ere bultza zuen proiektua, ekinda edo ekidinda. Esku-hartzea ekiditeko, besteak beste, isiltasun administratiboa erabili zuen. Baina ekimenez ere bultzatu zuen proiektua: 2012an zigortu egin zuen arren hondakin arriskutsuekin trafikatzeagatik, 2015. urtean "EAEko bigarren zabortegi onena" izendatu zuen Jaurlaritzak! Azken ikuskaritzetan nahiz eta Verterrek ez zuen azterketa gainditu, eta nahiz eta salaketa bat jartzeko beste hutsune aurkitu, ez zuen salatu. Espediente bat zabaldu zioten baina salatu ez.

Goiko maila horietan Josu Jon Imazek ere bultzatu zuen, erakunde publikoen "gutxieneko esku-hartzea" sustatu baitzuen bere dekretuarekin. Dekretu europarra zen, hondakinen lobbyen presioz atera zena, baina adituekin ikusi beharko litzateke Josu Jon Imazek harago eraman ote zuen dekretu hura EAErako. Baina noski, bera orain Repsoleko bigarren burua da, Espainiako enpresen artean BPG gehien fakturatzen duen Repsolekoa.

Asko dira politika utzi ondoren hondakinen negozioan ari diren enpresetara joan direnak edo hondakinen negozioetako lobbyan lan egiten dutenak. Beste politikari batzuek zabortegiak zaintzeko zerbitzu publikoak pribatizatu dituzte, eta beste politikari batzuek politika utzi dutenean enpresa pribatuak sortu dituzte zerbitzu horiek kudeatzeko. Horrelako gauzak Madrilen eta Valentzian aurpegiratu egiten dira, oso kritikatuak dira, eskrutinio handia dute. Baina "euskal oasia"ren distirak ez digu uzten hori ikusten.

Zaldibarko zabortegia erori ostean kontrolak egin behar zituzten URA agentziarekin eta Ingurumen sailarekin Verterreko jabeek zituzten harremanak ere agertu dituzu.

Hondamendiaren momentuan, URAko agentziako zuzendaria zen Ernesto Martínez de Cabredo. Amenabar eraikuntza enpresako zuzendaria izan zen 2016 arte eta Arriolak eraman zuen URAra; egun Eusko Trenbide sareko zuzendaria da, Arriolak berarekin eraman baitu. Zabortegia erori zen momentuan Martínez Cabredo presidente zen José Ignacio Barinagak eta Arrate Bilbaok (Verterreko kasuan inputatuak biak) sortutako Zuribar enpresan.

> ***Orain hiru jokaleku daude: herri mugimendua batetik, herri akusazioak epaiketan bestetik, eta hirugarrenik politikariek Legebiltzarretan egiten duten lana. Garrantzitsua litzateke hiru eszenatoki horiek gehi kazetariena artikulatuta egotea***

Bere garaian Matxaria enpresa sortu zuen Barinaga familiak, Eibarren zabortegi bat kudeatzeko asmotan, eta enpresa hartako kontseilari izendatu zuten gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen zuzendaria den Mónica Pedreira Lanchas. Nor eta Iván Pedreira Lanchasen anaia, zabortegia erori zenean Ingurumen Administrazioaren zuzendari zena. Horregatik, PSOEko Ingurumen saileko hainbat arduradunen zenbakia bazegoen Jose Ignacio Barinagaren telefonoan.

Verterrek Juan Etxeberria Elosegi (egun inputatua) zuzendari tekniko izendatzea, EAJri ere eskua luzatzeko modu bat izan zen. Bere osaba Ignacio Etxeberria Monteberria EAJko diputatu ohia eta hondakin arriskutsuekin lan egiten duen Indumetaleko presidentea da. Eta bere aita Juan Jose Etxeberria Bankoako lehendakari ohia eta Luzaro sozietateko lehendakari ohia da. Luzaroko partaide da Jaurlaritza eta 2009an 400.000 euroko mailegua eman zion Verterri.

Hori da "euskal oasia"ren solidaritatea edo EAJren egoismo falta: badaki bere bezerokeria ongi partekatzen eta auzi bat dagoenean, denak daude tartean. Zein erraza litzatekeen turko-buru gisa Iñaki Arriola agertzea prentsaurreko batean, eta iritzi publikoak erabaki dezala. Baina hainbeste gurutzatzen dira bezerokeria sareak, ze bat jausten bada besteak ere jausi baitaitezke. Gainera, PSOEko adreiluaren gizona Iñaki Arriola da. PSOEk bere burua eskatu balu, bere hiper-erreakzioa oso gogorra litzateke.

Ez hori bakarrik, Arriolak afera honen ondoren bere muskulua indartu egin du! Jarraitu du kontseilaria izaten, Eibarren bere idazkari ohia izandako Eneko Andueza PSOEko talde parlamentarioko bozeramailea da eta Arriolak aipatu ditugun hainbat jende, Ernesto Martínez Cabredo, Iván Pedreira Lanchas... berarekin eraman ditu. Zentzu horretan ez dio fakturarik pasa Zaldibarkoak, indartsuago atera da! Eta hor gure buruari begiratu behar diogu, zer ez dugun ongi egin.

Ate birakariak, bezerokeria... eta alderdien finantzaketa?

Barinagak hitz egingo balu! Barinagari aukera hori emango nioke: zu ere bezerokeriaren piramidean harri koskor bat zara, baina goikoez hitz egiten baduzu, eta azaltzen baduzu zergatik aipatzen zenuen hainbeste alderditan afiliatua zeundela eta zergatik aipatzen zenuen txokoetako afarietan alderdiak poltsikoan zenituela, makina bat diru sartu diezuelako eta abar, munduak dar-dar egingo luke.

Amiantoaz ezer berririk?

Epaiketaren instrukziorako, Ertzaintzak amiantoari buruzko hainbat txosten eskatu dizkio Osalani. Eta dokumentu horien arabera, 2019ko maiatzean lan plana atzera bota zuen Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak. Lan planak zehazten du nola tratatuko duen enpresak amiantoa, langileak nola babestuko dituen, nola ez den amiantozko fibrarik transmitituko ingurumenera... eta plan horrek ez zuen azterketa gainditu, hainbat gabezia baitzituen. Gabezia horien artean daude gaur egun saltsa handia pizten duten kontu hauek: nork eramaten zuen langileen arropa garbitzera, zenbat orduz aritu zitezkeen gehienez amiantoarekin lanean... eta beste gabezia interesgarri bat da, niri gehiago

interesatzen zaidana, 2017 arte Verter ez zegoela "amiantoa izateko arriskua duten enpresen erregistroan sartuta" eta 2012tik ari zen amiantoa hartzen, eta amiantoarekin lan egiteko ezinbesteko baldintza da erregistro horretan egotea. Jaurlaritzak atzera bota zuen lan txosten horrek dio, erregistroan Verterren ordez agertzen zen izena Amiantec-ena zela, Amiantec enpresa baitzen lan plana egin zion enpresa. Baina Jaurlaritzak, zituen hutsuneengatik lan plan hori atzera bota ostean, Verterrek beste enpresa bat kontratatu zuen lan plana egin ziezaion eta amiantoa izateko arriskua duten enpresen erregistroan izena eman zuen.

Eta orain zer izango eta Amiantec enpresa kontratatu du Jaurlaritzak Zaldibarren jauzitako Verterren zabortegia desamiantatzeko! Verterri amiantoaren legezkotasuna tranpeatzen saiatu zen enpresa bera kontratatu du orain Jaurlaritzak! Hau da nazka ematen duena eta jendeak entzun nahi ez duena, bere bizitza sinplifikatu nahi duelako. Jendeak ez du arazorik nahi eta pentsatu nahi du kudeaketa publikoa arrotza zaiola.

Hain justu liburuan zerrendatzen dituzu zein enpresak lortu dituzten Jaurlaritzako kontratuak Zaldibarko desastrea konpontzeko: guztira 11, denak ere EAJren ate birakariak.

Verterrek sortzen du ingurumen arazo bat, eta Jaurlaritzak aurreratzen du konponketen diru guztia. Susmagarria, ezta? 27 milioi horietatik gehienak Moyua eraikuntzara doaz baina gardentasun aldetik ez da emergentziazko kontratu guztiak azaltzen dituen zerrenda bateraturik argitaratu.

Jaurlaritzak dio apirilean bidali ziola lehen faktura Verterri, 3,4 milioi eurokoa. Ez dakiguna da ea Verterrek ordaindu duen edo are ordaintzeko gai den, kiebran baitago. Geroztik ez dakigu beste fakturarik igorri zaion.

Zaldibarkoa konpontzeko airearen eta uraren kalitateari lotutako kontratuetan, badira EAJko burkideek sortutako enpresak. Kargu publikoan daudenean zerbitzu publikoak pribatizatzen dituzte, horrelako negozioak sortzen direnean beraien enpresak izan daitezen lehenengoak. Hori oso normalizatuta dago, enplegua bilatzeko Batzokia Lanbide baino bulego hobea izatea bezala. Enplegu bulego fantasmak dira, herritarren arteko aukera berdintasuna, demokraten oinarrizko printzipioa, usteltzen dutenak. Eta inork ez du Batzoki bat erreko horregatik.

Ingurumen zerbitzuak eskaintzeko enpresa sortzen duenak, ez badu Imaz, Egibar edo Arzallus abizenik, lehiaketetan ez du zereginik beste enpresa horien aurka. Beste enpresa horiek hobeak al dira bada? Ez, baina abizen bat dute. Eta hainbeste loditzen dute beren curriculuma, ezen hirugarren urtean lehiara aurkezten direnean besteek ez baitute zereginik. Gainera, beren burua aurkezten dute "gu abilak gara zerbitzu publikoak kudeatzen, badakigu nola egin zeren hainbat kontratu egin ditugu"... Noski, baina nola? Eta nor zapalduz? Beraientzako ere sakratua den merkatu librea zapuztuz, monopolioak sortuz. Monopolioa da gakoa Zaldibarren ere, eta eskuindar asko ere asaldatzen ditu monopolioak, EAJko igogailua sekula hartu ez duten EAJko bozkatzaileak barne, beren seme-alaben ogibidea ere badagoelako jokoan.

Zer dakizu epaiketaz? Liburuan azaltzen duzu epaiketarako Verterrek kontratatu duen abokatua Pedro Learreta Olarra dela, Garrigues abokatu bufeteko kidea. Eta bulego hau kontratatu zuela Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016an, erraustegiaren aldeko txosten bat egiteko.

De Miguel auzian ikusi den bezala, epaiketa batzuetan diru publikoaren defentsan aritu diren abokatuak beste epaiketa batzuetan diru publikoa lapurtzen aritu direnen defentsan aritu dira. Noski edozein pertsonak izan behar duela defentsarako aukera. Baina interesgarria da jakitea abokatu batzuk diru makinak direla.

Liburuaren bigarren edizioa argitaratzera goaz, dagoeneko agortu baita urrian kaleratu zen lehen argitalpena, eta gaurkotu egin dut, zeren sumarioaren filtrazioa justu liburua bukatzen ari nintzenean iritsi zitzaidan, eta zatitxo bat soilik sartzeko aukera izan nuen. Bigarren edizioan dena sartu dut. Hor datu interesgarriak daude, adibidez, nola izan ziren erregistroak, zein enpresatan sartu ziren; zer argudio dituen Ertzaintzak inputazioak egiteko, eta orain arte landu ez den horietako bat da Verterrek Jaurlaritzari bidalitako txosten bat: Ertzaintzaren instrukzioaren arabera, Verterrek Jaurlaritzari bidalitako txosten horrek argi uzten du 2018 eta 2019an ez zela egonkortasuna bermatzen eta "edozein eszenategi" aurreikusten zela, baita gertatu zena ere! Beraz, Jaurlaritzak bazekien gertatu zitekeela.

Eta zabortegiko azken egunak nola izan ziren argitzea ere garrantzitsua izango da. Zein bilera egin zituzten egonkortasuna aztertzeko, zein zalantza zeuden... Ertzaintzaren instrukzioan bi esaldi agertzen dira. Batetik: "Jose Ignacio Barinagak ez du inongo kezkarik agertzen, geologo eta ingurumen kontsultoreek ohartarazten diotenean arazo serioa dagoela egonkortasunarekin". Eta bestetik: "Egoera azaldu zitzaionean, zuzendari teknikoak esan zuen administrazioari deitzea pentsatzen ari zela". ●

TXIMURKA

Musika nota eraldatzaileak Gasteiztik

Musika ikasketak ordaindu ezin dituztenei musika irakatsi, bidean bestelako mundu eta harremanak eraikiz. Bulkada horretatik hasi ziren elkartzen Gasteizko Jesús Guridi Musika Kontserbatorioko zenbait musika irakasle urte bete baino gehiago dela. Orduko ametsak ameskeria bihurtzekotan egon ziren COVID-19aren ondorioz, baina musikan gorpuztu dira azkenik. Kefren De Agaphilek eta Joana Otxoa de Alaiza Graziak azaldu digute zer den eta zertan den Tximurka proiektua.

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA DOS POR DOS

Migratzaileek gurean bizi dituzten bidegabekerien eta sufrimenduen aurrean zerbait egin nahi zutela azaldu digu Joana Otxoa de Alaiza piano irakasleak, musikatik eta ikuspegi kritiko batekin: "Geroz eta zailagoa da instrumentu bat ikastea dirurik gabe, musika geroz eta elitistagoa da. Nahi duen ororen eskura jarri nahi dugu, baztertuta daudenei tokia eskainiz, baita beren burua garatzeko aukera ere". Proiektuaren hartzaileak migratzaile pobretuak izatea zuten buruan hasieran, baina bidean fokua zabaldu dute: "Oro har musikaren ikaskuntzarekin kontaktua izateko beste aukerarik ez duen edonorentzat da Tximurka. Ikasketa ordaindu ezin duenarentzat".

Hierarkiak eta norabide bakarreko praktikak ekidin nahi dituzte. "Musika eskola bat non 'irakasleak' ez duen garrantzi handiagoa: irakasten dago momentu batean, eta beste pertsona bat jasotzen, baina beste une batean alderantziz izango da. Ez duzu zertan irakasle izan proiektuan parte hartzeko, ezta musika irakasteko ere. Musikaren profesionalak ez diren irakasleak batu zaizkigu jada".

ESKUZABALTASUNA OINARRI

Eskuzabaltasunak egin du posible orduko ametsak haragitzen joatea. Gasteizko Mugarik Gabeko Musikariak (MGM) elkartearekin jarri ziren harremanetan lehenik. "Ate guztiak zabaldu eta musika tresna piloa laga dizkigute", azaldu digu Otxoa de Alaizak, gordeta dituzten dozenatik gora gitarrak seinalatuz. Aretoko bi piano ederretako bat eta akordeoi bat ere herritar batek oparitutakoak dira. Hasierako harreman emankorrak Tximurka MGMren parte izatea ekarri du naturalki, baina proiektua autonomoa izaten jarraitzen du.

Espazio baten beharra eta horrelakorik ordaindu ezina kezka iturri izan ziren hasieratik. Ezustean hots egin zien proiektuaren berri izan zuen emakume batek, hutsik zuen lokala musu-truk erabiltzea eskainiz. Panama kaleko egoitza ondo dago egitura aldetik, baina ia hutsik, eta hobekuntzak egin nahi dituzte. "Toki goxoa izatea nahi dugu, musikariak edota musikan interesa dutenak erakarriko dituena". Nola egin aurre gastuei? Jaso duten beste donazio anonimo batekin, 2.000 eurokoa: "Laguntza handia izan da. Obra aurrekontua egin digute, eta laster hasiko gara".

Baina ez dute egokitze lanak amaitu arte itxaron ibiltzen hasteko, eta azaroan entzun ziren lehenbiziko musika akordeak Tximurkan. Zenbait elkarterekin elkarlanean irakasleak eta ikasleak harremanetan jartzen dituzte, "momentuz gutxi batzuekin, ea ondo doan ikusteko": Gasteizko CEARekin (Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea); Alde Zaharreko Goian proiektu hezitzailearekin; eta OEE Arabarekin. "Adibidez, hiru piano irakasle gaude. Osatzen dugu ordutegien eta egunen taula bat eta jartzen gara haiekin kontaktuan, ikusteko eskaintzen dugun hori jasotzeko interesa duen inork", azaldu du Otxoa de Alaizak. "Bakoitzak nahi duena ematen du. Irakasle batzuek ordu erdi astean, beste batzuek osoa, edo bi...". Alderantzizko noranzkoan, elkarteek musika ikasteko gogoa duen pertsonaren bat dutenean Tximurkarekin jartzen dira harremanetan, "eta gu irakasle bat aurkitzen saiatzen gara".

IKASLEA IRAKASLE?

Kefren De Agaphil da musika klaseak jasotzen ari den gasteiztarretako bat. Gitarra irakasten dio Nikok, eta poz-pozik dago Tximurkako proiektuarekin: "Horrelako zerbaiten bila nengoen. Kantatu egiten dut, baina instrumenturik jo ez, eta ikasi nahi dut". OEE Arabako kide *Agus*-ek deitu zion, "Esan zidan, 'Aizu Kefren, eskolak ordaintzeko edo eskola ofizial batean izena emateko aukerarik ez duten pertsonentzat proiektu bat dugu, telefonoa emango dizut'. Joanarena zen. Hitz egiteko geratu ginen, lokala ikusi, eta Nikoz hitz egin zidan".

Musika talde bat osatu eta han-hemenka aritzea da De Agaphilen ametsa. Bost urte dira Gasteizera heldu zela, bere egoera ekonomiko eta administratiboa ez da

samurra. Talde batean kantari lanetan aritu zen aspaldi, ondoren taberna batean kontzertuetan noizbehinka parte hartzeko aukera izan zuen, eta justu osasun krisia hasi aurretik talde berria osatu nahian zebilen. "Baina koronabirusa heldu zen, eta agur". Egoera leheneratzeko irrikaz dago, ametsari berriz ere heltzeko.

Tximurkaz lehenengo pertsonaren pluralean hitz egiten du bolikostarrak –"Proiektua aurrera ateratzeko ahalegina egingo dugu"–, eta zer edo zer "emateko" irrika du: "Klaseak jasotzen ditut, baina beste gauzaren batean ekarpena egitea badut egingo dut". Otxoa de Alaizak agian irakasle lanetan hasiko dela esan digula aipatzen diogunean, irribarre lotsatia zuzentzen digu: "Beno, bai, agian kantuan irakatsi, dakidana...".

COVID-19AREN ZAILTASUNEN GAINETIK

Tximurka ibiltzen hasi berria da, eta formatu txikian ari dira momentuz. Bost lagun ari dira klaseak ematen eta beste horrenbeste jasotzen. Irakasle lanetan dabiltzan guztiak Euskal Herrian jaioak dira, eta instrumentua ikasten dutenen jaioterriak Georgia, Boli Kosta, Venezuela eta Algeria dira. Neurri batean haiek erabaki dute klase gehiago ez ematea, pixkana hazi nahi dutelako. Baina bizi dugun krisirik gabe Panama kaleko lokalak bizitza handiagoa luke. Txeloa, tronpeta, tronboia, pianoa eta gitarra irakasteko prest dauden lagunak ditu Tximurkak, baita abesbatza irakasle bat ere. Baina osasun irizpideengatik erabaki dute momentuz aldi berean klase bakarra ematea lokalean, edo maskara kentzea eskatzen duten haizezko instrumentuekin ez hastea, besteak beste. Bestalde, asanblada eta eztabaiden erritmoa mantsotzen dute elkartzeko debekuek edo ordutegi murrizketek, proiektua baldintzatuz.

Penarik ez, ordea. Ibiltzen hasteaz gain, beste proiektu asko dituzte ganbaran. Agertoki txiki bat egin nahi dute kontzertu txikiak egiteko, eta asteburuan lokala ireki. Ehunka partitura dituzte jada bilduta lokalean, eta horiekin funts autogestionatua egin nahi dute, jendeari maileguan hartzeko aukera emateko: "*Puntazoa* izango dela uste dugu, oso toki gutxi baitago partiturak hartzeko aukera ematen duenik. Alemanian adibidez, liburutegietan partituren atala izaten dute, hemen ez: musika eskola baten partaide izan behar duzu eskuratu ahal izateko", dio Otxoa de Alaizak. Tximurkan hasitako bidea musika eskola batean jarraitu nahi dutenei azterketa prestatzen laguntzeko eta sarbidea ordaintzeko gaitasuna izan nahiko lukete noizbait. "Horretarako sarrera ekonomiko propioak beharko genituzke, ez dugu diru-laguntza publikorik nahi". Eta ez dute baztertzen proiektua diziplina eta ekimen berrietara irekitzeko aukera, dantza edo pinturara kasu.

LAGUNDU ETA BATZEKO HAMAIKA AUKERA

Otxoa de Alaizak eta De Agaphilek gasteiztarrei dei egin diete Tximurkara batzera edo proiektua beste nolabait babestera: klaseak eemanez edo jasoz, asanbladara batuz, instrumentuak, dirua, mahaiak eta aulkiak edo arbela emanez. Harremanetarako tximurka@gmail.com helbidea ireki dute.

Ilusioa eta poza transmititzen dituzte bi hizlariek, musika tresnez eta partiturez betetako gelan. "Dugun ibilbide laburrean, oso harrera beroa sentitu dugu, esker on asko, interes handia... Hasierak Tximurka beharrezkoa dela berretsi digu", dio Otxoa de Alaizak, eta De Agaphilek borobildu du elkarrizketa: "Ikasle eta irakasle artean harreman estuak sortzen dira. Niretzat orain proiektua oparia da". ●

Surf park bat Donostian?

2015ean, munduko surflaririk ezagunenetako bat den Kelly Slater-ek gizakiak sortutako lehen olatua aurkeztu zuenetik, olatu artifizialak eraikitzen hasi dira –ez polemikarik gabe– batean eta bestean. Donibane Lohizunen herritarrek halako proiektu bat atzera bota eta hilabete gutxira, Donostian bat egin nahi dutela jakinarazi du Eneko Goiaren udal gobernuak. Kokapena: Martutene langile auzoko Antondegi mendian, itsasotik 4 kilometro eskasera, hirian urbanizatu gabe geratzen den leku gutxi horietako batean.

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Ingurumenarentzat kaltegarria dela? Kaltegarriagoa litzateke bertan 3.000 etxebizitza egitea". Hala erantzun die Donostiako alkateorde Nekane Arzallusek (EAJ) EH Bilduko zinegotzi Markel Ormazabal eta Elkarrekin Podemoseko Marta Huarte eta Haizea Garayri urtarrilaren 18an. 2020 urtearen hondarretan, *El Diario Vasco* egunkariak publikatu zuenetik Udalak Martutene auzoan bederatzi hektareako surf parkea egin nahi duela, lehen aldia da aurrez aurre eztabaida maila politikora iritsi dena. Jende ugarik ez bazuen ere serio hartu, Donostiako Udaleko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean argi ikusi da gobernu honek asmo irmoa duela proiektua burutzeko. Oposizioak aurkeztutako interpelazio eta galderei esker, proiektuari buruzko informazio gehiago jakin ahal izan da.

"Surfaren aktibitatea bera hobetzen lagunduko du. Surflariek bertan entrenatu ahal izango dute eta ziur gaude honi esker gazte asko hasiko dela kirol honetan". Hala defendatu du Arzallus alkarteordeak, Goiaren faltan. Bere hitzetan, surfa kirol bezala bultzatzea erabakia dute Donostiako Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Basque Team Fundazioak, eta Surf City Donostia klusterrean biltzen diren orotariko eragileek nahi dute hirian kirol hau sustatzea –zehazki esan gabe kluster horretan dauden eragileek babesten duten azpiegitura hori–. Turismoa erakartzeko pentsatutako proiektua dela aurpegiratu diotenean, adierazi du ez dela hala, donostiarrei zuzendutako proposamena dela batik bat. Hirian, kirol honen bueltan lan egiten duten enpresa ugari dagoela eta azken batean, surfa bultza nahi dutela: "Urteko edozein egunetan surfeatu ahal izango dute proiektu honi esker".

Proiektuari buruzko zenbait tekniko ere jakinarazi dituzte batzordean, adibidez, noren jabetzakoa den lursaila. Ondorengo kopuruen baturak ez badu ere %100 ematen, hauek bertan esandakoak: eremuaren %1,08 Donostiako Udalarena litzateke, jabe pribatuena %67,40 eta Eusko Jaurlaritzarena %27,55 –Jaurlaritzari atxikitako Visesa sozietate publikoarena–. Enpresa pribatu batek kudeatuko luke parkea eta kontzetsioa bi urte barru egitea aurreikusten dute. Oposizioak jakin nahi du ea proiektua esku artean duten eta igerilekuaz gain, ea dendatxorik, jatetxerik edo halakorik egingo duten galdetu diote, edo ea kalkulatu duten zenbat lanpostu sortuko lituzkeen. Lehen galdera oso gainetik pasa du eta lanpostuena ezin dela zehatz jakin adierazi du, proiektuak definitu arte. Atzean geratu da Ernesto Gascok iragarri zuen garaia Antondegin bertan olatu artifiziala eraikitzeak 500 lanposturen sorrera ekarriko zukeela. Hala ere, proiekturen bat egon badago duela urte batzuetatik, Vocento taldeko egunkariak argitaratu zuen albisteak fotomuntaia zehatza baitzekarren, eta

Donostian egoitza duen Wavegarden enpresak Ingalaterrako Bristol hirian eraiki berri duen olatu artifizialen igerilekua.

atzean ikusten den Txomiñenea auzoan azken bi urteetan eginiko lanak egin gabe ageri ziren.

KALTE EKOLOGIKOA KRITIKAREN ARDATZ

Proiektuaren aurkako argudio nagusiek ingurumena izan dute oinarrian orain arte. Albistea publikatu eta egun gutxira, proiektuaren aurka mintzatu den lehen eragilea Itsas Enara / SEO-Birdlife ornitologia elkartea izan da, salatuz surf parkeak desagertze arriskuan dauden hegazti ugariren habitata hondatuko lukeela. Antondegi mendian 117 hegazti espezie daudela gogoratu dute, eta horietako 29 Eusko Jaurlaritzak duen Mehatxatutako Espezieen Katalogoan daudela. Ondoren, Eguzki talde ekologistak gaitzetsi du proiektua, xake taulan posizioak hartzen doazen eragileak bailiran. Hauek hainbat arrazoi nagusi azpimarratu dituzte: olatu naturalak dituela hiriak, energia xahuketa, gastua, ingurumenaren txikizioa...

Donostiako EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek ere ingurumena hartu dute kritikarako ardatz nagusi: mendia artifizializatu nahi dutela, errepideak egin beharko dituztela bertara heltzeko, ur eta energia xahutze handia izango dela eta klima larrialdia aldarrikatua duela hiriak. Azken puntu honekin lotuta, alkateordeak erantzun die ez dagoela ingurumenaz kezkatzeko arrazoirik, bai Donostiako Udalak, baita Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ere–Iñaki Arriola buru– beharrezko diren txostenak egin eta neurriak hartuko bailituzkete, kalterik ez eragiteko fauna eta florari. Gainera, udaleko saioan hiru aldiz errepikatu dute ondorengo argudioa: kaltegarriagoa litzateke bertan 3.000 etxebizitza egitea.

Egungo gobernuak proiektu hori defendatzen du 2010eko Lurralde antolaketarako Plan Orokorrean urbanizagarria dela jaso zutelako. Hala ere, lurralde antolaketa egin zenetik hamarkadatik gora igaro den honetan, zenbait gauza dezente aldatu dira, tartean, klima larrialdi betean dagoela mundua, eta norabide horretan, Udal gobernu honek 2020ko martxoaren 17an, larrialdi klimatikoaren adierazpena publiko egin zuen, bere buruari ekintza proposamen ugari eginez, tartean, "2010eko Plan Orokorrean urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoru batzuk egikaritzeari uko egitea" eta plan berria egitea "irizpide klimatikoekin".

Mendiaren gainaldeko surf parkearen bederatzi hektareez gain, adierazi dute Antondegiren oinean dagoen 27 Poligono industriala beste hamar hektarea handituko dutela, eta hori bermatuta, Antondegi mendiko gainontzeko 74 hektareak ez-urbanizagarri gisa sailkatuko lituzketela eta uko egiten diotela bertan 3.000 etxebizitza egiteari. Mugimendu politiko hau nahikoa izango al du Goia alkateak klima larrialdia geroz eta serioago hartzen duten herritarren au-

rrean, hamar igerileku olinpiko adinako azpiegitura klimaren aldeko ekintza gisa saltzeko?

UHIN ARTIFIZIALAREKIN BUELTAKA

Jende asko sorpresan harrapatu badu ere, badira zenbait urte baga artifiziala eraikitzeko asmoak publikoki aipatu izan dituztela hiriko agintariek.

Historiarako geratu da Odon Elorza alkate zen garaian, 2007an, aurkeztu zuten olatu artifizialaren proiektua. Zurriolako hondartzan bertan, itsaso barrenean, 230 metro luzeko, 40 metro zabaleko eta Kursaal eraikinaren altuerako uhin mekaniko erraldoia egiteko asmoa adierazi zuten. Ander Usabiagak berreskuratu du sare sozialetan *El Diario Vasco* egunkarian Mitxel Ezquiagak orduan idatziriko artikulua, non asmakizuna aurkezten zuen "Gipuzkoa berritzailearen irudi" gisa. Hura ere ez zen turismoa erakartzeko proiektua izango, "energia berriztagarriak bultzatzea" zen asmoa, nahiz eta turismo zinegotziak aurkeztu ideia. Olatuaren proiektua inauguratzeko, zer eta energia berriztagarriei buruzko nazioarteko jardunaldiak antolatuko zituztela jakinarazi zuten, hirira etortzeko Al Gore edo Bono abeslaria gisako pertsonaia ezagunen izenak hasieratik aipatuz. Ez zen sekula egin eta proiektuak historiaren zabortegian amaitu zuen.

Hamarkada bat beranduago, 2017an, Ernesto Gasco Donostiako alkateordeak –gaur egun Espainiako Gobernuko haurren pobreziaren aurkako goi mandataria– adierazi zuen olatu artifiziala egiteko asmoa, oraingoan hiriaren periferian: Altzan edo Zubietan. 2018an surfari buruzko nazioarteko jardunaldi batzuetan berriz aipatu zuen ideia, baina oraingoan esan zuen Espainiako militarren kuartel berria Martuteneko Antondegin egiten ez bazen, bertan egitea proposatuko zutela. Uda sasoian "hondartzetako pilaketak saihesten lagunduko" zukeela esan zuen, baita 500 lanpostu sortuko zituzkeela ere, aurrez aipatu dugunez.

> Ez da aztia izan behar jakiteko hainbat milioi euroko proiektua gauzatzeko boleto gehien dituen enpresa Wavegarden dela

ZER DIOTE SURFLARIEK?

Donostiako Udaleko batzordean azalpenak ematean, Nekane Arzallusek adierazi du hiriko surfaren eragile nagusiak biltzen dituen Donostia City Surf klusterrak hirian surfa bultzatzea nahi duela. Susma daiteke bertan biltzen diren eragile batzuek begi onez ikusten dutela proiektua, adibidez, hauek egiten dituen WaveGarden enpresak; ez da aztia izan behar jakiteko hainbat milioi euroko proiektua gauzatzeko boleto gehien dituen enpresa dela hau. Hala ere, klusterrean orotariko elkarteak daude, izan surf eskolak, Groseko Indarra gisako surflarien elkartea, arropa dendak, Euskal Herriko Surf Federazioa, hotelak, taulak konpontzeko dendak, Gipuzkoako Piraguismo Federazioa, Fortuna kirol elkartea, Mondragon Unibertsitatea eta arropa marka ugari. Galdera da ea guztiak dauden Martuteneko naturgune honetan halako azpiegitura bat eraikitzearen alde.

Ikusteko dago kokatuko diren oraindik posiziorik hartu ez duten eragileak, Martutene eta inguruetako auzo elkarteak edo Donostiako surflariak beraiek, batzuk aipatzearren. Bitartean, nazioartean 50.000 bazkide dituen SurfRider's fundazioak orain hilabete gutxi publikoki adierazi du *Fake Wave* –Olatu Faltsua– deitzen dien azpiegitura hauen aurka dagoela, surfari egiten dioten balizko ekarpena baino askoz handiagoa delako ingurumenean eragiten duten kaltea.

Azpiegitura berri honen aurkakoak Donibane Lohizuneko esperientziari begira daude, orain gutxi geratu baitzkiote hanak Udalari, QuickSilverri eta Wavegardeni. Zenbait hilabetetan ia 70.000 sinadura bildu zituzten aurka eta era guztietako surflariek adierazi zuten beren izenean ez zutela naturaren aurkako halako proiekturik onartuko. Borroka sozialek, ordea, tokian tokiko ezaugarriak dituzte eta ikusteko dago Gipuzkoan gai izango diren herri mugimenduak eta oposizio politikoa EAJ-PSE-ren udalaren norabide neoliberala geratzeko. Azken urteetako aurrekariak ikusita –hiriaren erdigunea hankaz gora jarri duen metroan milioika euro xahutzen ari direla, hirian AHTarentzat lurpeko geltokia, dozenaka hotel gehiago ireki, uhartean 4 milioi euroko eskultura ordaindu, aldirietan erraustegi bat abian jarri, Garbera merkatalgunea bikoiztu, ondare arkitektonikoa zaborraren pare zaindu, eta abar–, talka iragartzeak ez dirudi erokeria. Nola amaituko den? Hori ikusteke dago. ●

Gaur egun Antondegi gainak duen itxura.

LANDER ARBELAITZ

NIK EUSKARAZ, ZUK ERDARAZ

Elkarrizketa elebidunek funtzionatzen al dute?

Euskarak tokia irabazteko aukera ederra dira elkarrizketa elebidunak: hiztunek euskaraz egin ahal izango dute, parean dituztenek hitz egin ez baina euskara ulertzeko gaitasuna dutelako. Hizkuntza jokoak hiztunei euskara hutsean aritzeko aukera eskaintzen die. Norbanakoaren ekimenez edo antolatuago, halako hainbat praktika egin dira eta egiten dira. Jendetsuenak eta prestatuenak izan dira Euskaraldiko bi edizioetakoak. Baina funtzionatzen al dute elkarrizketa elebidunek? Zein oztopo eta onura dituzte? Euskal komunitatetik kanpora ba ote dute arrakastarik?

MALEN ALDALUR AZPILLAGA

Asier Lafuente Aguraingo euskaltzalea da eta Euskaraldian Arabako Lautadako koordinatzailea izandakoa. Uste du elkarrizketa elebidunak pentsaezinak zirela orain dela gutxi arte: "2016ra arte ez zitzaigun halakorik burutik pasa ere egiten. Nola egin guk euskaraz eta besteak gaztelaniaz?". 2016an aldiz, zerbait aldatu zen aguraindarren hizkuntza erabileran. 75 ordu euskaraz aritzeko apustua egin zuten: "Geroztik niretzat elkarrizketa elebidunak ohikoak bihurtu dira".

Testuingurua eta hitzarmen sozial bat edukitzea ezinbestekoak direla uste du Lafuentek, eta bat dator horretan Xan Aire ere. Urepelekoa da bera eta badira urte batzuk elkarrizketa elebidunak izaten hasi zela: "Ondo dago halako kontratu moduko batzuk egitea, esanez, zuk erdaraz egin hala nahi baduzu, baina nik euskaraz egingo dizut". Aipatu du lagun batekin, esaterako, hori hitzartu zuela, eta geroztik arazorik gabe izaten dituztela elkarrizketa elebidunak. Hitzarmena edukitzeak inguru goxoagoa sortzen du eta modu horretan elkarrizketak erosoagoak izaten direla azpimarratu du. Hain zuzen ere, kontratu eta testuinguru hori eskaintzen ditu Euskaraldiak epe batez, eta horrek elkarrizketa elebidunei aterkia eskaintzen die.

IDATZIZ ERRAZAGO

Airek elkarrizketa elebidunak ahoz baino idatziz errazago edukitzen dituela nabarmendu du. Izan ere, ez da hain deserosoa izaten eta hasieran behintzat arrakastatsuagoak dira: "Orain ahoz elkarrizketa elebidunak izaten ditudan lagun batekin idatziz hasi nintzen". Idatziak beste denbora batzuk eta beste erraztasun batzuk eskaintzen ditu eta uste du abiapuntu interesgarria izan daitekeela. Testuinguru guztiak ez dira berdinak, jakina: "Festa giroa, esaterako, oso egokia da". Urepelen, normalean frantsesez hitz egiten duten batzuek, festa giroan euskaraz hitz egiten diote-

la dio: “Festa orduak aurrera joan ahala geroz eta errazago egiten dute euskaraz, eremu horretan ez da kontraturik egiten, baina jendea lasaiago sentitzen da; lotsa galtzen dute”. Baina zergatik gertatzen da hori? Airek dio jendeak pentsatzen duena baino hobeto egiten duela sarri euskaraz, baina oso testuinguru jakinetan egitera baino ez daudela ohituta, eta eremu hori zabaldu egiten dela festa giroan: “Nik ere errazago egiten dut gaztelaniaz halako egoeretan”.

Hori dela eta, elkarrizketa elebidunak modu naturalean izateko testuinguruak sortzearen beharra azpimarratu du: “Euskal kulturaren inguruko topalekuak, esaterako, oso eraginkorrak dira horretarako”. Urepelen, adibidez, inauteriek indar handia dute; libertimendua ospatzen da antzerkia, dantza eta bertsoa uztartuta: “Badakigu horiek plazan euskaraz egingo ditugula, beraz, entsegu eta prestaketa guztiak modu naturalean egiten dira giro euskaldunean”. Bertso eskolekin ere antzeko zerbait gertatzen dela dio, eta haiei esker, gazteek hezkuntza formalean baino askoz modu naturalagoan euskaraz hitz egiteko aukera dutela: “Kantatzen hasten garenean, euskaraz kantatzen dugu eta uste dut giro hori ere baliatzen ahal dela hainbat gauza aldatzeko”.

Lafuentek berriz azaldu du elkarrizketa elebidun eraginkorrak edukitzeko trantsizio bat egitea garrantzitsua dela: “Zaila da bat-batean erdaratik euskarara igarotzea, baina pixkanaka joan gaitezke hizkuntza ohiturak aldatzen”. Euskarazko eremu asko irabazi ditu berak elkarrizketa hauei esker, eta azaldu du zenbait kasutan lagunak hitz batzuk euskaraz esatea ere lortu duela: “Beste kasu batzuetan gaztelania hutsean hitz egiten dute, baina behintzat nik euskaraz erantzuten diet”.

Alabaina, badaude elkarrizketa elebidunak zailtzen dituzten zenbait espazio, adibidez, lan mundua. Airek dio Ipar Euskal Herrian lan munduko egoera oso zaila izan daitekeela. Alde batetik, ez dago euskara planik edo antzekorik, eta beste aldetik, enplegatzailearen aldetik ez da egoten inongo asmorik edo gogoetarik hizkuntza aniztasuna edo euskara gehiago baloratzeko. Uste du, zentzu horretan, Euskaraldiak *arigune*-en bidez “mikro euskara planak” eskaini dituela eta bide horretatik jarraitu beharko litzatekeela.

Bestelako zailtasun bat ere ikusten du Lafuentek, elkarrizketa elebidunetan gako izan daitekeena: “Askotan egoten den zalantza izaten da besteak zenbat ulertzen duen”. Euskaldun berria da Lafuente eta gogoan du benetan ulertzen zuena baino gehiago ulertzen zuela aitortu izana: “Hiztun batzuek euskara ulertu nahi dute, baina benetan uste dutena baino gutxiago ulertzen dute. Horrelakoetan, gerta liteke elkarrizketa hasi eta konturatzea ez dela ondo ulertzen ari, eta zailtasunak sortzen dira euskaraz hitz egiten jarraitzeko”. Aguraindarrak dio Euskaraldiaren lehen edizioan egindako ikerketak erakusten duela *ahobizi*-ek zailtasunen aurrean gaztelaniara aldatzeko joera dutela: “Halako kasuetan garrantzitsua da euskal hiztunek hizkuntza erregulatzea bestearen ulermen mailara”.

ZER GERTATZEN DA EUSKAL HERRITIK KANPORA?

Elkarrizketa elebidunak ez dira berriak, eta jakina, ez dira hemen besterik gertatzen. Pello Jauregi EHUko irakaslea

DANI BLANCO

Bouba Dioufek uste du beste hizkuntzak eta dialektoak mantentzeko garrantzitsua dela elkarrizketa elebidunak bultzatzea. Berak Senegalen hala egiten zuen eta hemen euskarari eusten dio nahiz eta parekoak gaztelaniaz erantzun.

JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Elkarrizketa elebidunetan gako izan daitekeen zailtasun bat ikusten du **Asier Lafuentek**: “Askotan egoten den zalantza izaten da besteak zenbat ulertzen duen”.

JON URBE / FOKU

Pello Jauregik *Uler-saioak* metodologia liburuan elkarrizketa elebidunen nazioarteko hainbat esperientzia jaso ditu.

da eta hizkuntza ohiturak aldatzeko egitasmoak ikertzen ditu. Euskaraldiko *belarriprest* eta *ahobizi* figuren diseinatzaileetako bat da. Soziolinguistika Klusterrarekin iaz argitaratu zuen *Uler-saioak* metodologia liburuan nazioarteko hainbat esperientzia jaso ditu. Bertan aipatzen du nola Delfí Dalmau pedagogo eta hizkuntzalari katalanak 1936. urtean eleaniztasun pasiboa proposatu zuen, hizkuntzen arteko elkarbizitzarako tresna bezala. Hizkuntzalariak zehaztu zuen hiztun bakoitzak bere jatorrizko hizkuntza menperatu behar zuela eta inguruko hizkuntza baten baino gehiagoren ulermena eduki: "Lehena, oinarria, eta bigarrena, osagarria". Europako beste zenbait esperientzia ere biltzen ditu liburuak. Egungo Europan, giro eta baldintza sozio-politiko berriak sortu direla dio, eta horrek, eleaniztasun pasiboaren ideia berpiztu duela.

Jauregiren ustez, gero eta gehiago dira ingelesaren nagusitasun "masibo eta akritikoari" mesfidati begiratzen diotenak. Iritzi horretakoa da Carme Junyent hizkuntzalari katalana.Katalunian eta nazioartean harreman akademiko ugari izaten ditu, eta hainbat akademiko eta ikerlarik bileratan nork bere hizkuntzan hitz egitearen aldeko apustua egin dute, ingelesa erabili beharrik gabe. Jakina, horrek eskatzen du hiztunek besteen hizkuntzak ulertzeko gaitasuna izatea. Europan sarri hizkuntza erromanikoak baliatzen dituzte horretarako. Helburua hizkuntza aniztasuna biziberritzea dela dio hizkuntzalari katalanak: "Diskriminaziorik ez egitea da asmoa, izan ere, dena ingelesez egiten badugu beste hizkuntzak alboratzen ari gara eta ingeles hiztunei pribilegioak ematen; bakoitzak bere hizkuntza erabili badezake, denok gaude baldintza berdinetan".

Aritzeko modu horrek hainbat onura dakartza Junyenten hitzetan; esaterako, bestela mundu akademikora iritsiko ez liratekeen zenbait proposamen eta ahots entzutea ahalbidetzen du. "Jendea ohitu egiten da beste hizkuntzak entzutera eta gozatu egiten du beste hizkuntzetan uste baino gehiago ulertzen duela konturatzen denean. Eztabaidetan, esaterako, askoz parte-hartze handiagoa egoten da".

Katalunian, halako dinamikak naturaltasunez ematen direla azaldu du, eta lehen baita Frantzian ere: "Frantsesek ez zuten katalanen helburu berberekin egiten, baina lehen askotan erabiltzen zuten euren hizkuntza; orain ingelesa gero eta gehiago erabiltzen dute". Gaineratu du Esloveniako akademikoek jarri zutela antzeko esperimentu bat martxan, baina ez daki zein erantzun eta jarraipen izan duen.

Giro akademikoan egin dituzten esperimentuek emaitza onak eman dituztela dio Junyentek: "Duela urte batzuk Japoniako ikerketa talde batekin jardunaldi batzuk antolatu genituen eta planteatu genuen nola egin genezakeen ingelesa ez erabiltzeko. Batek katalanez egiten zuen, beste batek okzitanieraz, eta besteak frantsesez. Beste batek ez zuen hizkuntza erromanikorik ezagutzen eta esperantoz hitz egin zuen". Arrakasta izan zuen parte-hartzaile kopuruari begiratuz gero: 80 pertsonentzako tokian 90 bildu ziren. 2017an hizkuntza indigena eta gutxituen errehabilitazioa hizpide izan zuen kongresu batean ere nork bere hizkuntzan egin zuen: "Kongresuaren irekiera hitzaldia kitxuaz izan zen. Hizkuntza aniztasunaren alde egin ditugun apustuek, momentuz, funtzionatu dute".

ELKARRIZKETA ELEBIDUNAK SENEGALEN

Mundu akademikotik at ere badaude elkarrizketa elebidunen adibideak. Senegalen, esaterako, hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten dituzte harreman informaletan eta horrek elkarrizketa elebidunak izateko tartea irekitzen die. Bouba Diouf Senegalen jaio zen, Dakarren, eta orain Basaurin bizi da. Sei hizkuntza hitz egiten ditu, tartean euskara. Wolofera erabiltzen du Senegalen, baina txikitan pulaar ere ikasi zuen: "Pulaar hizkuntza ulertzen dut, baina ez dut hitz egiten". Wolofera da hizkuntza nagusia Senegalen eta horrek gainerako hizkuntzak alboratzea ekarri duela uste du: "Wolofera hitz egiten da lanean, dendetan, kalean... baina batzuek jarraitzen dute beraien artean pulaar hitz egiten. Hala egiten dutenei nik ulertzen diet eta elkarrizketa elebidunak izaten ditugu".

Dioufek uste du beste hizkuntzak eta dialektoak mantentzeko garrantzitsua dela elkarrizketa elebidunak bultzatzea. Horregatik, euskaraz ere hala egiten ahalegintzen da: "Hemen ere gertatzen zait, jendeak gaztelaniaz egiten dit, eta nik euskaraz. Hizkuntza indartzeko aukera polita da". ●

DANI BLANCO

Carme Junyent, nazioarteko esperientziez: "Diskriminaziorik ez egitea da asmoa, izan ere, dena ingelesez egiten badugu beste hizkuntzak alboratzen ari gara eta ingeles hiztunei pribilegioak ematen".

JUANAN RUIZ / FOKU

Xan Aireren ustez, idatziak beste denbora eta erraztasun batzuk eskaintzen ditu eta abiapuntu interesgarria izan daiteke ondoren ahozko elkarrizketa elebidunak izateko.

EUSKARA

Mendigatxaren ‘uskarazko’ gutunak, herritarren esku

Manuel Mendigatxa bidankoztarrak Resurreccion Maria Azkueri 1902tik 1916ra arte bidalitako erronkarierazko gutunak berrargitaratu dituzte. Nekazaria, herriko alkate ere izandakoa, ama hizkuntza galtzorian zela jabetu zen, eta hura erakusteko ahaleginetan jardun zuen amorerik eman gabe.

URKO APAOLAZA AVILA

Neguarekin batera, Bidankozeko herritarrek opari bitxi bat jaso dute postontzian. Mariano Mendigatxak eta Resurreccion Maria Azkuek XX. mende hasieran trukatu zuten korrespondentziarekin osaturiko liburua. Mendigatxak (Bidankoze, 1832-1918) Erronkariko euskararen galera bere haragitan bizi izan zuen, eta garaiko hizkuntzalariekin lan egin zuen bailarako ahozko ondarea jasotzeko. Azkueri bidalitako gutunei esker dakizkigu, hein handi batean, *uskarazko* esapide eta hitzak, baina horrez gain, egun nafar Pirinioetan galzorian den bizimodu bati buruzko informazio baliotsua ere ematen dute.

Mariano Mendigatxa & R. Mª Azkue. Correspondencia / Eskutitzak (1902-1916) liburua Nafarroako Gobernuko Kultura sailak eta Bidankozeko Udal edo Aiza Bulguak argitaratu dute, Landarte programaren barruan. Gotzon Perez Artutx eta Alberto Angos arduratu dira publikazioaren edukiaz, eta diseinua, berriz, Anne Ibañez Guridik egin du. Liburuaren azala berezia da oso, gutun baten itxura baitu. Barruan, Mendigatxaren ondarea eta eskutitzak ulertzeko gakoak eskaintzen dira.

BIDANKOZARTE

MENDIGATXA garaiko argazki batean. Nekazari eta Bidankozeko alkate izana, ondo ezagutzen zuen erronkariera, ama Melchora Ornatengandik ikasita.

Ez da lehen aldia erronkarierazko gutun horiek argitaratzen direna. Perez Artutxek Bidankozarte elkartearen buletinean azaldu duenez, 1957an Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian agertu ziren Alfonso Irigoyenek transkribaturik, eta lau urte geroago, Azkueren gutunak eraman zituzten aldizkari berera, Faustino de Zerio *Biurko* bargotarraren eskutik –Bidankozeko eskolako maisuaren anaia–. 1982an Jose Estornes Lasak beste edizio bat egin zuen *Fontes Linguae Vasconum*-en.

Baina nabarmendu dutenez, orain arte aldizkari espezializatuetan publikatu denez, herritarren artean gutunak ez ziren oso ezagunak. Horregatik, lehenbizikoz liburura ekarri dituzte publiko zabalari zuzenduta, bereziki bidankoztarrei, eta haien etxeetara bidali dute. Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsean ere eskura lezake nahi duenak.

2018an, Mendigatxaren heriotzaren mendeurrenean, omenaldia egin zioten Bidankozen, “eskerrik anitx” eman eta bere lana balioan jartzeko. Berezko nortasuna izan duen bailararen kultur -transmisioan giltzarri izan zen, zalantzarik gabe, gure gizona.

"Yaketa kain on baizau gore uskara..."

"Anke erraiten daitadala daigun udan xinen dela kona gaizak onki erkiten bazazkau ilabete batentako, kemenko uren artra, ene eta iror edo lauren lagungiuareki, tenpra guziuan uskaraz ele erraiteko. (…) Gorian dagon tenpran, alaba et ni alkar mintzaten gra uskaraz; deiten tigu orrek erraiten daizkugun gente adineko guziuak; baya nago ustetan alaba eta nitarik erkiten eztiona, eztiola erkinen ñortarik iri kontan (…) Yaketa kain on baizau gore uskara, nik ere ala egin nazake sar lakion buruko unetraino".

(1903ko urriaren 29an Azkueri bidalitako gutunaren zatiak)



BIDANKOZARTE

GUTUNAK ETXERA
Lehen aldiz liburuan jasota eta publiko zabalari zuzenduta argitaratu dituzte Mendigatxaren gutunak. Bidankozeko herritarrek etxean jaso dute altxor baliotsua.

ERRONKARIERAREN GALERA

Erronkariko euskarazko idatzizko lehen testigantza 1569. urtekoa da: sorginkeria egotzita atzemandako Burgiko herritarrak *uskara* hutsean mintzatu ziren epailearen aurrean, ez zekiten besterik. Mariano Saturnino Mendigatxa Ornat 1832an jaio zenean, Erronkari bailara eta bere herria, Bidankoze, oraindik guztiz ziren euskaldunak, asko elebekarrak. Bindakozeko azpieuskalkia hitz egiten zuen maisu gardetarrak irakatsi zuen herri hartako eskolan denbora luzez, 1787tik 1841era, eta seguruenik horrek izango zuen zerikusirik.

Baina Mendigatxari, batez ere bere ama Melchora Ornatengandik zetorkion euskaraz aritzeko gaitasuna –lau urte besterik ez zituela geratu zen aitaren partetik umezurtz–. Alta, Bigarren Gerra Karlistaren ondoren, 1880ko hamarkada inguruan, belaunaldien arteko transmisio etena gertatu zen, euskararen kontrako jazarpenaren ondorioz, eta denbora gutxian galdu zen hizkuntza: bere bilobek ez zuten ezagutu erronkariera.

Galera horren jakitun zen Mendigatxa, eta nekazariak oraindik mantentzen zuen hiztegi aberatsa baliatu zuen orduko hizkuntzalariei –tartean Luis Luziano Bonaparteri eta Azkue berari– helarazteko: "Pensamentiuan artruk dakad biar daudala eskribitu al dokedan tenpra guziuaz, ilabete oro (...) Eztakid gaxki ala onki eskribitan daudan; obroena barragarritako izanen zazka ene astakeriak", azaldu zion Azkueri gutunetako batean. Lekeitiarra 1902an ezagutu zuen Santa Grazin egindako topaketa batean, jadanik 70 urte zituela; bilera hartatik gazteturik itzuli zen ordea, eta erronkariera ahalik eta gehien erakusteko determinazioarekin. 1916. urtera arte iraun zuen haien arteko harremanak.

AMORE EMAN ALA EUTSI

Mendigatxaren aita, Manuel, buruzagi karlista, lehen karlistaldian hil zuten tropa liberalek etxe atarian, "Mendigatxa, manukortu!" (Mendigatxa, amore eman!) oihukatuz; geroztik, esapide hori ezaguna da herrian. 2020ko azaroaren 28an, Lapitxarronga haitzean *Ríndete o resiste* (Amore eman ala eutsi) pankarta paratu zuten, Landarte programari amaiera emateko. Aukeratutako tokia ez da ausazkoa. Abuztuan, haitz horretan *Domingueros fuera* afixa agertu zen eta ezezagunek mendi ibilbideen panelak ere ezabatu zituzten; herritarren erantzuna berehalakoa izan zen eta auzolanean garbitu zituzten panel horiek. Pirinioetako herri txikiak bizirik mantentzeko egiten ari diren lanaren adierazgarri ere bada hori.

Landarte programak Nafarroako landa guneko komunitateak ahalduntzeko kultur-proiektuak bultzatzen ditu, tokiko artistekin batera. Kasu honetan, Txaro Fontalba sortzaileak hartu du parte, Mendigatxaren gutunen eta lurralde oroimenaren inguruan proposamenak eginez, esaterako postalak diseinatu eta banatu, irakurketak egin... Fontalbak bere webgunean idatzi du badela "Mendigatxa sindromea" deiturikoa: hizkuntza baten azken hiztuna izatearen kontzientzia. Bidankozeko alkate Tomás Pasquelek zabaldu egin du adiera eta "bizitza mota baten desagerpenaren lekuko izan eta horretaz jabetzea" ere badela dio.

Bertsolari hark zioen bezala, herria eta hizkuntza, bata bestea gabe ezin dira bizi. Agian horregatik eutsi zion Mendigatxak etxean ikasitakoari azken hatsa eman arte, "solamente ta ekus tzan zerbait gore uskaratik". ●

Zorigaiztoko *Dublindarrak*

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Dublin (Irlanda), 1904. James Joyce (1882-1941) idazlea kontakizun bilduma bat idazten hasi zen, gerora *Dubliners (Dublindarrak*) izenburua izango zuena. Hiru bat urtetan osatu zuen liburua, baina ez zuen berehala argitaratzea lortu.*Seigneur* edo jaunaren esku dago oraindik.

Guztira, 15 editoreri bidali zien orijinala. Egia da guztiek ez ziotela ezezkoa eman; 1910ean Maunsel & Roberts editoreek mila kopia inprimatu zituzten, baina testuari buruzko desadostasunak medio, argitaratzaileek akordioa hautsi zuten eta ale guztiak erre. Gainera, James Joycek inprentako gastuak ordaindu behar izan zituen; inprentan erabili zituzten xafla originalak behintzat beretzat gorde ahal izan zituen eta beste editore batek erabiltzeko eskubidea ere lortu zuen. Baina, abantaila hori ez zen nahiko izan eta beste lau urte eman zituen idazleak, editorez editore.

Azkenean, liburua idazten hasi eta 10 urtera, 1914ko ekainean, Grant Richards argitaletxeak merkaturatu zuen kontakizun laburren bilduma. Lau urte lehenago etxe berak interesa adierazi zion egileari, baina ez zuten adostasunik lortu. 1914an Joycek hainbat baldintzatan amore eman behar izan zuen: saldutako lehen 500 kopiengatik egileak ez zuen sosik jasoko eta, gainera, 120 kopia berak erosi behar zituen. Baina, azkenean, *Dublindarrak* lanaren 1.250 ale merkatuan zeuden.



EUROPAKO INFORMAZIO ETA KULTURA LIBURUTEGIA

Irlandar klase ertainaren deskribapen naturalista hura ez zen, ordea, berehala klasiko bihurtu. Hil horretan bertan, ekainaren 28an Frantzisko Josef I.a Austriakoa hil zuten Sarajevon eta Lehen Mundu Gerra piztu zen, eta hori ez zen lagungarri izan salmentan. Lehen urtean 379 kopia saldu zituen; ez dakigu egileak kontratuz ordaindu beharreko 120 aleak kopuru horren barruan dauden edo, horiek gehituta, guztira 499 saltzea lortu zuten, baina kontua da ez zela 500 alera iritsi eta, beraz, Joycek ez zuela ezertxo ere jaso. Eta ordurako 1.120 ale bere poltsikotik ordainduta zeuzkan.

1915. urtea oraindik eta txarragoa izan zen: 33 ale besterik ez ziren saldu eta, gainera, 499 kopia betirako galdu ziren. Irlandatik irten eta New Yorkera zihoan *SS Arabic* ontzian liburuaren ia 500 ale zeramatzaten, ozeanoaren beste aldean arrakasta handiagoa izango zuelakoan. U-24 alemaniar itsaspeko batek ontzia torpedoz eraso eta hondoratu zuen irlandar kostaldetik 80 bat kilometrora. Eta liburu haiek guztiak hondoan geratu ziren betiko.

Gaur egun, *Dublindarrak* klasikoaren milaka kopia saltzen dira dozenaka hizkuntzatan, eta zorigaiztoko lehen edizio hartako ale urriak 150.000 euroko preziora iritsi izan dira enkanteetan. ●

M. ROKO / J.I. ROYO

7.300 urteko artaldea Pirinioetan

2009an Els Trocs kobazuloa aurkitu zuten Huescan, San Feliu de Veri-Bisaurri udalerrian. Besteak beste, sarraski baten ondorioak aurkitu zituzten bertan. Baina, berriki, ikerlan baten bidez, bertan aurkitutako milaka arrasto aztertu dituzte, gehienak ardi arrastoak, eta Neolitikoan, duela 7.300 urte inguru gizakiek artaldeak handik pasa arazten zituztela ondorioztatu dute. Horrenbestez, Europako tranhsumantziaren frogarik zaharrenak dira Els Trocsen aurkitutakoak. Gainera arrasto zaharrenak garai hartakoak izan arren, 5.000 urte inguruko hezurrak ere aurkitu dituzte. Horrek esan nahi du transhumantzia ez zela puntuala izan, gutxienez bi milurtetan luzatu zen jarduera baizik. ●

ARGIAREN 2020KO EDUKIAK

2020an webguneko irakurrienak izan dira...



ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Webguneko datuen azterketa egin dute ARGIAn, ikusteko zein izan diren azken urtebeteko irakurleen joerak, zein albiste irakurrienak, zein blog jarraituenak, zein multimediako eduki ikusienak, zein *podcast* entzunenak. Neronek ez dizuet eskainiko 2020ari begira egindako azterketa honetan jasotako datuen ondoriorik. Bakoitzak atera ditzala bereak. Artikulu honen helburua gehiago da datuen errepasoa egin ondoren bildutako informazioa nahi duenaren eskura jartzea.

Pandemiarekin batera igoera nabaria izan du webguneko sarreretan ARGIAk eta webgunearen historian bisita gehien izan dituen hilabetea izan da apirila.

Telefono mugikorrak dira webgunerako bidea irekitzen duten gailu nagusiak. %63k tresna hori erabili du. Ordenagailua da bigarren gailu erabiliena baina aldea handia da: %35. Eta tresna horietan zein nabigatzaile den nagusi? Google multinazional ahalguztidunaren Chrome nabigatzailea, %63ko erabilerarekin.

Bisitari asko zuzenean sartu dira webgunera eta beste batzuk sare sozialetako lerroburuekin bakarrik geratzen dira. Baina badago tartekorik. Bisiten herenak jo du ARGIAra sare sozialetatik. Facebook da iturri erabiliena alde handiz, eta atzetik, Twitter dator.

Webguneko sarreren %40 zuzenean albisteetara izan dira. Beste %17 argia.eus-eko orri nagusira eta beste hainbeste astekariko edukietara. %6 multimediara. Webguneko atalik bisitatuena, berriz, dokumentalen kanala izan da.

Lehen hamar albiste irakurrienen artean maila gorenean dago Zubietako erraustegitik behera doan Arkaitzerrekan hilik agertutako arrainen ingurukoa. Eta gai berari lotutako beste albiste bat ere badago irakurrienen zerrendan. Baina gai nagusia koronabirusa eta pandemia da, erpin askotatik helduta, hamarretik bost albistetan agertzen dena. Interesatutako beste gaiak izan dira Zaldibarko hondamendia eta euskara.

Multimedian ikusiena *Erroa eta gero* dokumentala izan da eta blog bisitatuena *Beranduegi*, baita *podcast* entzunena ere.

Dena den, kontutan izan behar dugu datuok webguneko estatistikak soilik hartzen dituztela kontuan eta, beraz, irakurketa ez dela osoa. Jakinik geroz eta gehiago mugitzen garela sare sozialetan eta eskura ditugula sekula baino plataforma gehiago, ARGIAren eduki asko ere bertatik jasotzen ditu Argiazaleak, webgunera jo gabe; bai sare sozialetako lerroburuak irakurriz edo zintzilikatutako bideoak ikusiz, bai *podcast*-ak FM irratietan edo ivoox-en entzunez, edo bai, zorionez, lizentzia libreei esker ARGIAk sortutakoa beste hedabide batzuetatik jasoz. Eta nola ez, zuk bezala astekaria irakurriz. ●

ARGIA Sariak

Otsaileko lehen astean banatuko dira Argia Sariak, egunero bana

Badator Argia Sariak banatzeko garaia, baina aurten, pandemia dela-eta, bestelako moldez emango dira. Azken urteetan Usurbilgo Atxega jatetxean egin ohi dugu sari banaketa ekitaldia, ehundik gora lagun biltzen diren bazkari ederrean. Erakunde eta gizarteko ordezkariak, hedabideetakoak, ARGIAko kolaboratzaileak eta lan-taldea biltzen dira urtero bertan, gertutasun handiko ekitaldian. Aurten, ordea, bistan da ezin dela halakorik egin eta 32. edizioa desberdina izango da. COVID-19aren garaiak behartutako beste aldaketa bat.

Aurten otsailaren lehen astean banatuko ditugu Argia Sariak. Astelehenean hasi eta ostiralera bitarte egunero sari baten berri emango da ordena honetan: otsailaren 1ean Ikus-entzunezko Saria, 2an Kanpaina onenaren Saria, 3an Irratia Saria, 4an Internet Saria eta 5ean Prentsa Saria.

Sarien berri ARGIAren webgunean emango da, egunero 10:00etan. Horretarako saritu bakoitzari buruzko bideo landua sareratuko dugu, saridunen eskertza-bideoa, argazkia eta ARGIAren argudioekin batera.

MENDIZABALEN ARTELANAK SARI

Sariak ARGIAko langile taldeak hautatzen ditu eta horien bitartez saritu nahi da euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren munduan nabarmentzen diren lanak. Ez dago dirusaririk eta saridunek, ARGIAren aitortza eta zabalpenarekin batera, Antton Mendizabal eskultoreak egindako garaikurra eskuratzen dute. 1991tik banatzen ari gara Mendizabalen artelanak.

Azken hiru hilabeteetan herritar askok bidali dizkio ARGIAri sari proposamenak. Gero eta kazetaritza lan gehiago egiten da euskaraz, gero eta lan sendoagoak daude, eta ARGIArentzat ere gero eta gaitzagoa da lanak, pertsonak edo proiektuak hautatzea. Eskerrik asko proposamenak bidali dituzuen guztiei, kontuan izan ditugu eta oso baliagarriak izan dira iradokizun horiek guztiak.

EPAILEARENAK EGITEN

Fruta arbolen inausketa lanetarako prest bazaude, bost aholku eman nahi dizkizut.

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Hemen da epaila, konturatzerako ihauteria ketan eta martxoa atarian ditugula izango gara. Sasoiari erreparatuz, landaketak amaitu eta epaiketa edo inausketa lanei ekin behar diegu. Inausketak direla-eta, era guztietako burugabeko kirtenkeriak ikusten dira. Jendeak ikusten duena errepikatzen du, *Homo errepikans* gara. Zuhaitz eta arbolekin egiten diren sarraskiak ezin ulertu dira pertsona ñañarroak bera baino handiagoari dion beldur hezurretaratua ezagutu gabe.

Horren jakinaren gainean, fruta arbolen inausketa lanetarako prest bazaude, bost aholku eman nahi dizkizut. Izan ere inausketak eragin zuzena du arbolan: bere osasuna sendotu edo kaltetu dezake, landarearen egitura indartu edo ahuldu egingo du, uzta handituko edo urrituko du eta arbolaren etorkizunean eta bizimoduan gorabeherak ekar ditzake.

Kontuz fruta azkarregi bildu nahi izatearekin. Batek baino gehiagok pentsatzen du fruta arbola landatu eta hurrengo urtean igali gozoak bilduko dituela. Loraldi ona eta fruta oparo ematen hasteko, egitura, adarjea sendo osatua behar du arbolak. Gainontzean ez arbola eta ez fruta ez dugu izango puska batean.



Presarik ez, beraz.

Fruta gehiegi ez. Ez eskatu uzta handiegia arbolari. Frutaren emanak eta arbolaren zurajeak orekari eutsi behar diote. Fruta ekarri baina egurra berrituz. Fruta asko ematen duten arbolek, batez ere pipittadun sagarrondoek (*Malus domestica*), udareondoek (*Pyrus communis*) eta aranondoek (*Prunus domestica*) txandakatzeko joera dute. Hau da, urte batean fruta ugari eman eta hurrengoan ia batere ez. Biz behinerako makurtasun hori fruta-egurra orekarekin onbideratu daiteke.

Inausketak kateatu egingo zaitu. Bukatzen ez den kate batean sartuko zara. Alferrik da noizbehinka edo argia etortzen zaizun urtean bakarrik inaustea. Aurten bai eta gero ez dakit zenbat urtetan ez; irregulartasun horrek sarraskia areagotzen du, adar handiak moztu beharko dira, zauri handiak eraginez eta fruta erabat atzeratuaz. Inaustearen katean sartu bazara, eutsi horri eta egin urteroko lanak.

Azkarregi ez inausi. Zauriak izerdi berriarekin soilik orbainduko dira, martxo-apirilan alegia. Askoz lehenago moztuz gero, zauri horiek gaitzak eta izurriteak sartzeko atari ederra izango dira, eta arbola, haien bazka. Zauri gehiago, eta toki heze eta hotzean hainbat okerrago. Itxaron neguaren amaierari.

Ez gehiegi inausi. Adar handiak kentzea soilik arbola oso zaharrak biziberritzeko ametitu beharko litzateke. Bestela, adar zurgatzaileak, arbola desitxuratzen dutenak eta uzta erabat atzentzen dutenak sorrarazi besterik ez du egingo.

Pentsatu zure arboletan, zure frutaren emana dakarten amak dira. Kontuz genero indarkeriarekin. Genero horretako epaileen genero indarkeriarekin iaiotutako epaileak behar ditugu. ●

Etxeko landareak
Hitzaldia antolatzeko

Osasun neurriak zainduta zure herrian Jakoba Errekondoren hitzaldia antolatu nahi baduzu, idatzi:

bizibaratzea@bizibaratzea.eus

IRUÑEKO EKOMERKATUA

NAFARROAKO EKOIZLE EKOLOGIKO TXIKIEK BADUTE HILEROKO ELKARGUNEA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Urte gogorra izan da 2020a, bai, baina ezin uka egitasmo eta ekimen politak ere utzi dizkigunik. Horietako bat da, hain zuzen, konfinamendu bezperan Iruñean jaio zen Ekomerkatua. "Martxoan abiatu genuen; konfinamendu aurretik egin genuen lehena, eta sekulako arrakasta izan zuen", gogoratu du Ana Bados Blanco proiektuko arduradunak. Hileko lehenbiziko larunbatean Geltokin —autobus geltoki zaharrean— egiten dute azoka, eta koronabirusak apirilekoa bertan behera uztea ekarri bazuen ere, maiatzetik martxan dira berriz. Zailtasunak zailtasun, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluak eta INTIAk bultzatzen duten azoka iraunkorra gelditzeko iritsi da hiriburura.

EKOIZLEEN URTEETAKO ESKARIARI ERANTZUNA

Iruñeko erdialdean azoka iraunkorra edukitzea ekoizleen urteetako aldarrikapena izan da. "Nafarroako ekoizle ekologikoei hirigunean beren produktuak saltzeko gune finko bat eskaintzea lortu du ekomerkatuak". Azken hamarkadetan hiriaren eta landa eremuaren arteko harremana galtzen ari dela ikusita, lotura hori berreskuratzea eta espazioa eskaintzea da bultzatzaileen helburua. Eta hori guztia, noski, ekoizlearentzat zein kontsumitzailearentzat justua izanen den prezioan.

Nekazari eta abeltzainentzako topaleku bat sortzea ere bada asmoa: "Ekoizleek, askotan, ez dute haien artean ezagutzeko eta elkarlanerako eremurik". Agroekologiaren eta elikadura burujabetzaren bueltan lanean ari diren elkarte eta pertsonen elkargunea sortzea izan da erronka. Esaterako, hilero elkarte bat gonbidatzen dute merkatuan postua jartzera, haien lana ezagutzera emateko.

EKOLOGIKOA BAI, BAINA EZ EDOZEIN "EKOLOGIKO"

Merkatua martxan denetik, hilero-hilero parte hartzen duten hogei bat ekoizle finko dituzte, eta urteko sasoiaren arabera aldatzen doazen beste asko ere badaude. "Ekoizpen ekologikoaren zigilua beharrezkoa da azokan parte hartzeko, baina horretaz gain guretzat oso garrantzitsua da elikagaiak bertakoak izatea; lehentasuna ekoizle txikiek eta horretatik bizi direnek dute". Elikagaien transformazioan diharduenek, berriz, Nafarroako produktuak erabiltzeko baldintza bete beharra dute.

Ekomerkatutik saskia beteta atera daiteke eroslea: oliba olioa, hestekiak, fruta, fruitu lehorrak, arrautzak, esnekiak, lekaleak, marmelada, eztia, ogia, pastak, trufak, barazki freskoak, ardoa, jogurtak, gazta... eskaintza zabala da. Azokaren hastapeneko urtea aldrebes xamarra izan bada ere, jasotako erantzunarekin gustura agertu da Bados, eta ekoizleak ere egun bizi dugun egoeran horrelako guneak mantentzeaz pozik daudela dio. Ea datozen urteak lehenengo hau baino samurragoak zaizkien ekomerkatuari eta bertako ekoizleei. ●

MUGIMENDU FEMINISTAREN ERAGINA ZINEMA JAIALDIETAN

Aldaketa erradikalak ala "garbiketa arrosa"?

Feminismoak hainbat arlotan lortu duen erreferentzialtasunak ez du kanpo uzten zinema mundua. Emakumeen presentzia nabarmen hazi da filmeen ekoizpenean, eta lan horietako bat saritua izatea ere ez zaigu harritzekoa. Bestalde, zinema industrian jazo diren era guztietako erasoen salaketak ozen entzun dira bazter guztietan. Zinema jaialdien jarreraren inguruan hausnartu dugu, eraikitzera goazen gizartean duten betebeharra azpimarratzeko.

AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO

Zinema industriako 82 emakumek Canneseko (Frantzia) alfonbra gorria gaitzespenez bete zuten 2018an. Protestak epaimahaiko lehendakari zen Cate Blanchett zuen buru. Agerraldia egin zuten emakumeen kopuru zehatzak interpelazio garbia egiten zuen: nola zitekeen jaialdiaren historia luzean soilik 82 emakume lehiatu izana Urrezko Palma lortzeko, gizonak 1.600 izanik? Urte hartan bertan zinema jaialdi askok, tartean Donostiako Zinemaldiak, *Zineman Parekidetasunaren eta Emakumeen Inklusioaren aldeko Gutuna* sinatu zuten; ordutik konpromiso horrek jaialdiak behartzen ditu zinemaldien ostean genero estatistikak argitaratzera. Nahikoa al da, ordea, %50eko kuoten zeru-ertza sektorea eraldatzeko?

Joan den urteko irailean, Elías Querejeta Zine Eskolarekin batera Euskal Herriko Unibertsitateak antolaturiko *Zine-jaialdiei buruzko begirada kritikoak: historia, kultura eta politika* ikastaroan, tartea eskaini zitzaion feminismoak ekitaldi hauetan duen papera pentsatzeari. Ruth Pérez de Anucitak gidatu zuen mahaingurua, Donostiako Zinemaldiko prentsa arduradun denak, eta bertan parte hartu zuten Paz Lázarok –Berlinaleko hautaketa-batzordeko eta Panorama Saileko buruak– eta Marta Selvak –*Mostra Internacional de Films de Dones de Barcelona* (Bartzelonako Emakumeen Filmeen Nazioarteko Erakusketa) ekimeneko zuzendari ohiak–. Zinema jaialdietako genero-arrakala izan zuten hizpide saioan.

La Mostra gisa ezagun den Bartzelonako erakusketa 1993an sortu zen emakumezkoek zuzendutako zinema bultzatzeko asmoz. "Jaialdi handien" erreprodukzioa izatetik harago, *Mostra*k lehiarik gabeko esparrua ireki nahi izan du, zeinetan zuzendari eta ikuslegoaren arteko eztabaida gauzatzen den eta filmeen ekoizpenean laguntzen den. Bestalde, Berlingo Zinemaldiak jaialdirik aurrekoiena izatearen ospea du parekidetasunari dagokionean, eta Panorama Saila du bere baitan, "esplizituki *queer*, esplizituki feminista eta esplizituki politikoa" den eremua, eta kategoria horien gainetik pentsatzeko helburua duena. Horretaz gain, Berlinaleko zuzendaritza bikoitza Carlo Chatrian eta Mariette Rissenbeekek osatzen dute, tankerako beste jaialdietan zuzendari bakarra eta gizonezkoa den bitartean. Zinemaldi hau lehena izan zen *Teddy Award* saria txertatzen, LGTBIQ+ komunitatearen partaide diren pertsonaiak pantailaratzen dituen filmak saritzen dituena, eta ondorioz Pedro Almodóvarren *La ley del deseo* (Desiraren legea, 1987) edo Cheryl Dunyeden *The watermelon woman* (Sandia emakumea, 1996) bezalako filmeen erakusleiho garrantzitsua izan dena. Jaialdiaren azken berrikuntza, aurtengo edizioari begira, gizonezko eta emakumezko aktore onenaren sariak antzezpen onenaren izenburupean elkartzea izan da, sexu bereizketarik gabeko sariketaren alde apustu eginez.

Aipagarria da, apur bat atzera eginez, bi jaialdien abiapuntutzat uler litekeen 26. Donostiako Zinemaldia: 1978an emakumeek egindako zinemari eskainitako sail independentea bultzatu zuen Donostiako Emakumeen Asanbladak. Sail horretan, Agnès Varda edo Věra Chytilová bezalako zuzendariak mugimendu feministako kideekin eztabaidan jartzea lortu zuten, espazio zinematografikoa eta militantea uztartzeko helburuz. Gorka Bereziartuak ARGIAn argitaratutako *1977: Egarri egunak Zinemaldian* artikuluan jaso zuen nola eta zergatik horrelako ekimenik ez zen zinemaldiaren baitan errepikatu gerora (Ikerlaria eta Zine Eskolako irakaslea den Pablo La Parraren esanetan, Espainiar Estatuak eta Donostiako Zinemaldiak elkarrekin diseinatutako estrategian, zinema industriaren lobbyaren interesekoak ez ziren sailak desagerrarazi egin zituzten, goi mailako jaialdien kategoria berreskuratzearen truke). Halere, garai hartan hori antolatu izana feminismoa zine industrian izaten ari zen eraginaren erakusle da, eta ondoren sortu diren zinema jaialdi eta sailetako erreferentzia bilakatu da.

Kuoten gaia hartuta, emakumeek zuzendutako filmek, egun, Berlinaleko edukiaren %30-40 inguru osatzen dute; kategoria horretako jaialdi batek inoiz

Zinema industriako emakumeak protestan, Cannesko alfonbra gorrian.

NBC NEWS

lortu duen zifrarik altuena da. Aitzitik, pentsatu beharra dago datu hori zeharkatzen duten beste hainbat osagaitan. Hautaketarako izena ematen duten filmen %30 soilik izaten da emakumeek zuzendua, eta hori baino lehen datoz finantzaketa eta mezenasgoaren baheketak. Honen harira ondokoa galdetzen zuen Marta Selvak zinema jaialdien inguruko mahai-inguruan: nola liteke zine eskoletan ikasleen gehiengo zabala emakumezkoa izanik, jaialdi batek jasotzen dituen filmeen %70 gizonezkoek zuzendu izana? Aritmetikoki, behintzat, ez dirudi logikoa denik.

Horrek jaialdien erabakien errora begira jarri behar gintuzke. Borroka feministarekin harremanean dauden aldaketak egin izanak ez du bermatzen jaialdien gaiarekiko benetako konpromisoa. Neurriak hartzen ari badira, presioa egiten ari den eta gizartean gero eta pisu handiagoa duen mugimendu feministaren lorpenengatik da; halere, ezin ahantz liteke ematen den datu bakoitzak beste aldea ere baduela. Kuoten kontua iraultzaile gisa har daiteke goi-mailako zine jaialdi batek aurrera eramaten badu, beste zinemaldiak kokatzera behartzen baititu ekimen horretan. Halere, %40ra edo %50era iritsita ere, hitz egin ahal genezake parekidetasunaz? Nola lortu parekidetasuna bermatuko lukeen eta ehunekoek garrantzirik ez luketen agertoki bat? Bartzelonako

> Kuoten kontua iraultzaile gisa har daiteke goi-mailako zine jaialdi batek aurrera eramaten badu, beste zinemaldiak kokatzera behartzen baititu ekimen horretan

emakume zuzendarien jaialdia gai da aurrerapauso handiak emateko *beste* zinemaren historia idazteko orduan, baina horrek ez dakar, bere kabuz, gutxiengo intersekzional ororentzako lekua. Berlinaleko *Teddy Award*ak edo Antzezpen Onenarentzako Urrezko Hartzak ez dira nahikoa gizonezkoei egozten zaizkien paper ikusgarrien miresmena eraldatzeko, eta lehiarik gabeko *Mostra*k ere ez dakar lehiakortasunaren bukatzea bere islatik haragoko munduan. Beharrezkoa da, ezinbestean, iruditeria androzentrikoarekin hausteko exijentzia aktiboa ikuslegoaren aldetik, gizon zuri heterosexual eta erdi-mailakoaren desira ohoratu eta erreproduzitzen ez duena. Prentsaren jarrera aldaketa derrigorrezkoa da, zeinak egun, zinema industriako emakumeei beren bizitza pribatuaz galdetzen dien zinemaz baino gehiago. Zinema jaialdiak industriaren erreferente diren aldetik, sakoneko aldaketak eman behar dituzte epaimahaiari, proiektuen garapenerako laguntzei, hautaketa irizpideei eta dituzten helburuei dagokionez. Mugimendu feministak gizartea eraldatzen duen heinean aldaketa hauek saihestezin gertatuko dira, baina norberak bide horretan duen paperaz hausnartzea garrantzitsua da ematen diren pausoak azal arrosez zurituak izan ez daitezen. Orain artean patriarkalak izan diren zimenduak eraitsi beharra dago. ●

2019KO ARGITALPENEI BURUZKO TXOSTENA

Zenbat balio du euskarazko liburugintzak?

Esaten da euskal kulturgintza txikia dela. Txikia, ikuspegi ekonomikotik. Gutxitan plazaratzen dira, ordea, zenbakiak. Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika sailak urteroko *Euskarazko argitalpenei buruzko txostena* argitaratu du, 2019ko datuekin. Euskarazko liburugintzaren sektore ekonomikoaren irudi bat eta joera nagusien zertzeladak ematen ditu.

PERU IPARRAGIRRE

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak *Euskarazko argitalpenei buruzko XV. txostena* argitaratu berri du. Izenburuak dioen moduan, 2019ko euskarazko liburugintzari buruz egindako ikerketaren emaitza da. Azken urteetan bezala Madrilgo Conecta Research & Consulting enpresak egin du, Euskadiko Editoreen Elkartearen (ez nahasi Euskal Editoreen Elkartearekin) eta Espainiako Editoreen Elkarteen Federazioaren laguntzarekin.

Bi urte atzera begira jartzen gaitu txostenak eta izurriaren aurreko egoeraren irudi bat ematen du ikerketak.

2019ko euskarazko liburugintzari erreparatuz gero berehala datozkigu gogora Karmele Jaioren *Aitaren etxea* (Elkar) eta Amets Arzallus eta Ibrahima Balderen *Miñan* (Susa) nobelak, Elena Olaveren *Zeldak. Gorputz honetatik* (Balea Zuria) poema-liburua eta Hasier Arraizen *Maitasun keinu bat besterik ez* (Erein) saiakera, besteak beste.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, ordea, ez die liburuen egileei eta gaiei erreparatu, ezta, oro har, literatura ikuspegiari edo ikuspegi artistikoari ere. Beste bat da ikerketa honen helburua: liburuen produkzioari, eskaintzari eta fakturazioari buruzko datuak aztertzea.

Behin eta berriro errepikatzen den zerbait da euskal kulturaren industria (edo euskarazko kulturaren industria) txikia dela, neurri estrategikoak behar direla egunerokoan iraun baino gehiago egingo badu. Izurriarekin batera ere azaleratu den gaia da ondokoa: erakunde publikoen eskutik batez ere, baina oro har kulturgintza delakoaren egoerari aterabidea eman beharra. Hala eta guztiz ere, egoera benetan zertan den ez da modu publikoan eztabaidatzen sarri, ez dira zenbakiak mahai gainean jartzen. Kultur industria txikia izango da ekonomikoki, baina zer da txikia izatea? Zenbat balio du, adibidez, euskarazko liburugintzak?

DATUEN DANTZA

Eusko Jaurlaritzak euskarazko argitalpenei buruz osatu duen hamabosgarren txostena da hau dagoeneko. Urteroko liburugintzari errepasoa egiten dio, halaber, *Jakin* aldizkariak. Joan Mari Torrealdai zenak egin zituen 1976tik 2017ra bitarteko azterketak, eta Xabier Eizagirre Gesalagak hartu dio erreleboa orain. 241. zenbakian argitaratu dute 2018ko euskal liburugintzaren errepasoa. 2019koa datorren urtean argitaratuko dute.

Hala eta guztiz ere, Conectak egindako Euskarazko argitalpenei buruzko txostena eta *Jakin*ek egin ohi duen azterketa konparatuz gero, desberdintasunak nabariak dira urtez urte. 2018ko ekoizpenari buruz egindako ikerketan, adibidez, *Euskarazko argitalpenei buruzko XIV. txostenak* guztira 118 argitaletxeko unibertsoa hartzen du kontuan; *Jakin*ek, ordea, 334 argitaletxekoa. Alde hori zenbatutako tituluetan ere nabaria da. Conectak 1.842 ematen ditu 2018an, *Jakin*en ikerketak, aldiz, 2.138.

Xabier Eizagirrek *Jakin*en dioenez, alde hori bi aldagaiei dagokie nagusiki: informazioaren iturburuari, batetik, eta metodologiari, bestetik. Tituluen eta argitaletxeen kopuruari dagokienez ia esklusiboki ISBNan oinarritzen baita *Euskarazko argitalpenei buruzko txostena*. Gainerako informazioa argitaletxeengandik baino ez dute jasotzen.

2019ko ekoizpenari buruzko azterketetan ere, beraz, baliteke Conectak egindako ikerketan euskaraz argitaratutako guztia benetan kontuan hartu ez izana.

Txostenaren amaieran zehazten den moduan, datuak euskarazko argitalpenak plazaratzen dituzten enpresetan egindako laginketatik lortu dituzte eta, beraz, ikerketa ez da zurruna. Hala eta guztiz ere, euskarazko argitalpenaren joera nagusien adierazgarri gisa har daiteke.

JOERA NAGUSIAK

Zeintzuk dira, beraz, joera nagusiok? Zer datu azaleratzen ditu ikerketak? 2019an euskarazko liburuak 108 argitaletxek plazaratu dituztela dio ikerketak. Hori da kontuan hartzen duen unibertsoa. Horietatik 99 ISBN datuetatik identifikatu dituzte, gainerako bederatziak Iparraldeko argitaletxeak dira. Guztira 55 argitaletxek hartu dute parte ikerketan,

CECILI GIL / LA GRALLA

"Euskal literatura" deitura ia esklusiboki aitortzen zaion helduentzako fikzioa sailari (eleberria, antzerkia eta poesia biltzen dituena) fakturazio osoaren %5 dagokio Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntz Politika Sailak argitaratu berri duen txostenaren arabera.

gainerako datuak bigarren eskuko iturrietatik jaso dituzte.

Ikerketaren arabera, argitaletxe pribatuak eta Euskal Herriko Unibertsitatea kontuan hartuta, euskarazko 1.847 titulu argitaratu ziren 2019an. Inprimatutako aleen datua ere ageri da: orotara ia hiru milioi liburu. Paperean argitaratutako liburu bakoitzaren bataz besteko tirada: 2.226 liburu.

Nork argitaratzen du euskaraz? Argitaletxeka banaketa ageri ez bada ere, eta Ipar Euskal Herriko argitaletxeak kanpo utzita, euskaraz libururik argitaratu dutenen artean %34,3k baino ez du argitaratu bere tituluen %75 edo gehiago euskaraz.

Ekoizpena sailka ere aztertzen du txostenak. Egindako banaketaren arabera, helduentzako fikzioa (eleberria, poesia eta antzerkia, saiakera literarioak eta abar), haur eta gazte literatura, unibertsitatekoak ez diren testuak (hezkuntza arautuko testu-liburuak eta material osagarriak) eta fikziozkoak ez direnak (zientzien eta giza eta gizarte-zientzien arlokoak eta liburu praktikoak, dibulgazioa eta hiztegiak) bereizten dira. Datuen esparrua mugatuz, argitaletxe pribatuek paperean argitaratutako liburuei erreparatuta, unibertsitatekoak ez diren testu-liburuetan argitaratu zen izenburu berri gehien: 554; haur eta gazte literatura dator gero, 343 izenbururekin; fikziozkoak ez diren liburuak gero, 211 izenbururekin; eta, azkenik, helduentzako fikzioa, 179 izenbururekin.

Argitaratutako tituluetan ageri den banaketa hori beste datuei erreparatutakoan ere errepikatzen da, gutxi gora behera. Liburu bakoitzaren bataz besteko tiradari dagokionez, liburu gehien unibertsitatekoak ez diren testuen sailean ekoizten da, ia 3.000 aleko tiradarekin. Haur eta gazte literaturan 2.172koa da bataz besteko tirada. Fikziozkoak ez diren liburuen kasuan, helduentzako fikziozkoak baino izenburu gehiago argitaratzen badira ere, bataz besteko tirada baxuagoa da: 1.130 fikziozkoak ez diren liburuen kasuan, 1.548 helduentzako fikzioaren kasuan.

FAKTURAZIOA

Liburu bakoitzaren tiradaren datuez gain merkaturatzeari eta fakturazioari buruzko datuak ere biltzen ditu txostenak. Ikerketaren arabera, orotara, argitaletxeek 39.825.000 euro inguru fakturatu zituzten euskarazko argitalpenekin. Fakturazio osoaren %75,2 unibertsitatekoak ez diren testuen sailari dagokio, ia 30 milioi euro. Haur eta gazte literaturari %17 dagokio, zazpi milioi eurotik gertu.

Oro har "euskal literatura" deitura ia esklusiboki aitortzen zaion helduentzako fikzioaren sailari (eleberria, antzerkia eta poesia biltzen dituena), aldiz, fakturazio osoaren %5 dagokio, 2 milioi euro. Saila aztertuz gero, euskarazko liburugintza osoaren fakturazioaren %4 dagokio nobelagintzari.

Euskarazko liburugintza sektore gisa hartuz gero, beraz, testu-liburuen garrantzia nabarmena da. Testu-liburuak alde batera utzita, haur eta gazte literatura da euskarazko literatur argitalpenen industriaren zati garrantzitsuena.

Enpresa pribatuen kasuan, lanpostuen kopurua ere badakar ikerketak. Guztira 96 lirateke euskarazko liburuak argitaratzen dituzten enpresa pribatuak eta horietan 292 langile leudeke nominapean.

Azkenik, lurralde guztietako egile eskubideen ordainketa fakturazio osoaren %4,1 dela estimatuta (EAEko kopurua), guztira ia bi milioi euro ordaindu dira egile eskubideak erosteagatik. ●

LIBURUA

Ondarretako harrien sekretua

LARRAITZ URIA

ITSAS AZPIKO SEKRETUA
EGILEA: LUR GALLASTEGI
ILUSTRAZIOAK: IOSU MITXELENA
IBAIZABAL, 2020

XABIER ETXANIZ ERLE

Lur Gallastegik abenturazko hainbat liburu argitaratu ditu honen aurretik, kanpoko herrialdeetako errealitatearekin bat eginez gehienetan (Senegal, Sahara...). Oraingoan, baina, Donostian girotutako abenturazko nobela eskaini digu 10 urtetik gorako neska-mutikoentzat.

Liburuaren izenburuak berak iradoki bezala, sekretu baten atzetik ibiliko dira nobela honetako protagonistak: Peru, Aixa, Etor, Malen, Lander, Eira, Joana, Eider eta istorioa lehen pertsonan kontatzen duen Intza. Denak Antigua auzokoak eta Ondarreta hondartzan biltzen direnak oporrak hastearekin batera.

Intzak, baina, ez die hasiera ona eman oporrei. Lehenengo egunean Ondarretako harri batekin min hartu eta hainbat egun eman beharko ditu uretara sartu gabe. Lagunak txandaka geratzen dira Intzarekin hondartzan bakarrik egon ez dadin, eta tarte horietan, hainbat konturen artean, hondartzako harrien jatorria ikertzeari ekiten diote. Nondik datoz Ondarretako harriak? Egia al da han kartzela bat egon zela? Ba al dago sirenarik itsasoan?

Gallastegik proposatzen digun lan honetan irakurlea abenturazko zurrunbilo batean sartuko da; itsas zurrunbiloak bezala, honetan ere irakurlea gero eta barnerago, gero eta aurrerago jarraitzeko gogoz ibiliko da. Horretan, liburuaren ilustrazioek, Iosu Mitxelenak era errealistan eginek, lagundu egiten dute nobelaren haria jarraitzen; baina, batez ere, kapitulu laburretan antolatutako liburuaren egiturak eta deskribapenen gainetik protagonisten arteko elkarrizketa ugariek laguntzen dute irakurketan. Bestalde, narratzailea abenturetako protagonista bat dugula esan dugu arestian, eta horrek eragiten du irakurlea haiekin identifikatzea, hurbilago sentitzea. Hots, berari edo bere lagunei gertatutako istorioa balitz bezala bizitzea liburu honetako pasadizoak.

Itsas azpiko sekretua azkar irakurtzen den abenturazko liburua dugu; neska-mutiko koadrila baten oporretan jazotako hainbat eta hainbat gertakari biltzen dituen nobela interesgarria. Baina horretaz gain, liburu hau bada bide bat ere fantasiatik abiatuta errealitatearen mundura salto egiteko, gure historian barneratzeko eta, nahi izanez gero, 1936ko gerrako hainbat kontu ezagutzeko. ●



MUSIKA

2020an (agian) entzun ez dituzun lau disko

H30
HASIER OLEAGA, SORKUNDE IDIGORAS, JULEN IZARRA

GAZTELUPEKO HOTSAK

ILARGIAREN SEMEA 1619
XSAKARA

AUTOEKOIZPENA

SORM3N
JULEN BASTERRA GARMENDIA

AUTOEKOIZPENA

RED RIVER RIDE
MARTIN DE MARTE

AUTOEKOIZPENA

XALBA RAMIREZ

Gustatzen zait joandako urteari begiratua ematea, aukera ematen baitit ezagutzen ez nituen harribitxiak ezagutzeko. Arrazoi batengatik edo bestearengatik urteko zerrenda gutxitan (edo bakarrean ere ez) atera diren lau disko proposamen egingo dizkizuet.

H30 (Gaztelupeko Hotsak, jazza). Proiektuan Hasier Oleaga bateria-jotzailea, Sorkunde Idigoras piano-jotzailea eta Julen Izarra saxo-jotzailea ditugu. Izenak *Oleaga trioa* iradokitzen duen arren, hiru artistek sinatu dituzte kantak eta aniztasuna eman lanari. Lehen kantatik kontrasteak nabarmenduko nituzke, zati erritmikoetatik intentsitate eta lasaitasun uneetako aldaketa handietara. Musikari bakoitzak gehitutako ñabardurei esker kalitate zigilua lortu dute.

Ilargiaren Semea 1619 (Autoekoizpena, trapa). XSakara bermeotarrak trap eta hip-hop erritmoz betetako lan pertsonal eta intimista eskaini du, erritmoek eta leloek hori iradoki ez arren. 16 urtetatik 19ra bizitako esperientziak kontatu nahi izan ditu, euskal nerabezaroaren problematiketara hurbilduz modu freskoan. Ekoizpenak ez du berebiziko dotoreziarik, baina aldi berean ez da hantustetsua eta ibilgailu gisa eramango gaitu norberak bere barrenak arakatzera. Aipatzekoa da kanta bakoitzeko kolaborazioek emandako kolorea.

Sorm3n (Autoekoizpena, instrumentala). Julen Basterra Garmendia gitarra-jotzaile donostiar ezezagunak bere kabuz igo du Youtubera hamaika kantaz osatutako bilduma. Denak gitarra hutsez joak. Modu xumean grabatu ditu, etxean eskuragarri dauden materialekin. Angel Unzuren *13 solos* edo John Butlerren *Ocean* gogoratzen duten uneetatik Extremoduroren rock sinfoniko akustikoetara doa. Teknikoki izugarria da, eta emozionalki zer esanik ez: atmosfera ugari ukitzen du. Ez bilatu ezer, jarri diskoa osorik eta bidaiatu.

Red River Ride (Autoekoizpena, dream pop). Martin de Marte Zarauzko Marc de Marco dugu. Zarauztarrak lehenengo diskoaren azalean egin zion keinu kanadarrari, eta soinuan eta ehunduratan nabari da. Baina influentzia izateak ez du esan nahi kopia egin duenik eta libreki nahastu ditu rock, jazz, indie eta psychodelia ukituak, kanta lasai zein mugituetan. Chill out freskoa, chorus gitarra dantzariak eta bateria lehor dotoreak, denak Martin Muruak berak lokalean grabatutakoak. *You Better Ulertu* abestia da (eta bere bideoa) diskoko altxorra. ●

Disko baten bueltan jarrita

IÑIGO BASAGUREN-DUARTE ASTRA

KAFEA ETA GALLETAK

NOIZ: urtarrilak 5.
NON: Gernikako Astra gaztetxea.

40 pertsona bildu gara Gernikako Astra gaztetxean, bakoitza bere aulkian jarrita eta segurtasun distantzia mantenduz. Argi ahulak eta bozgorailuetatik datorren musikak giro erosoa sortu dute. 40 lagun, eszenatoki huts bati begira, beste norbaitek aukeratu duen diskoa entzuten, adi. Formatu egokituan, baina, Kafea eta Galletak ekimena itzuli da.

Bost urte eta gero bueltan da Kafea eta Galletak ekimena. Zergatik orain? Zergatik pandemia baten erdian, elkartzeko oztopoak eta baldintzak inoiz baino latzagoak direnean? Leire eta Ibon antolatzaileek argi daukate: kultura kinka larrian dagoen une honetan, are egoera larriagoan dago kultura herritarra, instituzioetatik kanpo egiten dena. Espazio alternatiboak balioesteko berrabiarazi dute bost urtez lozorroan izan den ekimena. Ezaugarriengatik, formatu bikaina da gaur egungo egoeran zirrikituak aurkitu eta kultur jarduerak gauzatzeko. Musika kontsumo azkarreko giro-zarata bihurtu den garaiotan, lagun artean bildu eta norbaitek aukeratu duen diskoa modu aktiboan entzutea eta komentatzea plan bikaina izan daiteke.

Oraingoan J Martina taldekoei egokitu zaie diskoa aukeratu eta aurkeztea. Gaur entzun behar duguna Dellafuenteren azkena izango da. Iaz argitaratu zuen Granadako artistak *Descanso en poder* (Sony Music). Flamenkoa eta musika urbanoa nahasten dituzten hamar abestiz osatuta dago lana. Proposamen interesgarria, Kafea eta Galletak-en ohikoak izan diren hautaketetatik nolabait aldendu dena. Entzunaldiaren ondoren, J Martinakoek granadarraren lanak musika eta kontzeptu aldetik haientzat izan duen garrantzia nabarmendu dute diskoari buruz eskaini duten solasaldian.

Entzunaldia eta gero J Martina taldearen zuzeneko emanaldiaz gozatzeko aukera izan dugu. Larrabetzu eta Barañaingo hirukoteak autotunearekin iragazitako bi ahots, gitarra eta sintetizadoreez osatutako proposamenak onerako harritu gaitu, ez baikenuen taldea ezagutzen. Sortu dituzten paisaia intimo eta ederretatik pasiatu dugu *Desira* eta *Su* bezalako abestiekin, baita *Beste Zerbait* abesti eder eta latzarekin ere. Askotariko musika-bidezidorretatik eraman gaituzte eta, bukaerarako, dantzan jartzeko gogoz geratu gara. Gogoz kontra, aulkietan jarrita mantendu gara altxatzeko seinalearen zain, bakoitza bere lekuan baina, nolabait, guztiok bat eginik. Bi bertsio eskaini dituzte, Dellafuenteren *Ya No Te Veo* eta Joseba Tapiaren musika eta Koldo Izagirreren hitzak dituen *Lagun Galduaren Geografia*.

Gernikatik asetuta itzuli gara, aspaldiko lagun zaharra ikusi eta lagun berriak egin ondoren. ●

Hitz gezidunak

Sexuari dagokiona / Neu, nihaur

Prozesu kimikoa / Modu atzizkia

Pertsonaiaren izena

Oso ondo / Buztin zuri

Herri baten grafiko / Olibondoz landaturiko saila

Nekatu / **Pertsonaiaren abizena**

Zotz / Dauka

Telebistako agertoki / Hareazko muinoa

Urrearen ikurra / Ezin ikusizko

Presiounitate / Teilapeko ganbara

Musika / Bularreko

Iritsi, heldu / Atera, irten

Faltsu / Argi, garbiki

Lasterka, korrika / Nafarroako udalerria

Rutenioaren ikurra / Ezinean

Sasidi, sasite

Nafarroako herria / Nafarroako udalerria

Araldea, jendaldea / Bezala, gisa

Erlijio katolikoan, apaizak sagaratzen duen ogia

Ganibet / Nafarroako ibarra

Musika nota / Esnea gatzatzean eratzen den ur gazi

Gaixobera, gaixoti / Unnilpentioaren sinboloa

Dozena-erdi (alderantziz) / Bihi, garau

Elkarren kontra bultzaka / Nori atzizkia

Tona / Musika estiloa

Pertsonaiaren izen artistikoa / Enpresa

Milioi bat bider milioi bat / Bat erromatarra

Eguzkia

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

			4		1		5	
		6		8			9	
	1		7	6				
1			8				6	3
2	8						7	5
6	5				4			9
				4	2		3	
	7			9		5		
	2		6		5			

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Errua
2. Ileak (bizkaieraz)
3. Lurpeko kartzela
4. Gizonezko izena
5. Ekintza

EBAZPENAK

5X5:

1. KULPA
2. ULEAK
3. LEOTZ
4. PATXI
5. AKZIO

8	3	9	4	2	1	6	5	7
7	4	6	5	8	3	1	9	2
5	1	2	7	6	9	3	8	4
1	9	4	8	5	7	2	6	3
2	8	3	9	1	6	4	7	5
6	5	7	2	3	4	8	1	9
9	6	5	1	4	2	7	3	8
4	7	1	3	9	8	5	2	6
3	2	8	6	7	5	9	4	1

K	O	N	P	A	I	N	I	A		E	K	I	A						
N	I	N	G	R	A	R	I	B		L	I	L	I	O	I				
G	A	Z	U	R		S	O	R	K	A	N			T					
R	E		E	R	I	K	O	R		I	E	S							
S	A	S	I	T	E	G	I		A	I	Z	T	O						
	U	S	U	N		T	A	L	D	E	A								
I	L	K	I		A	R	I	N	K	A		R	U						
	A	I	L	E	G	A	T	U		B	O	R	T						
D	U		A	U		B		D	O	I	N	U	A						
	X	O	T	X	U			P	L	A	T	O							
N	E	R	A	U		K	A	O	L	I	N								
	S		K			B		P			E								

Sara González

ESTOLDAK ASTINDUZ

KAZETARIA

"Arkitektura ikasteko asmoarekin batxilergo teknologikoa egin nuen. Baina selektibitatearen atarian iritziz aldatu nuen: betidanik gustatu izan zait idaztea, batez ere inguratzen ninduen errealitatea deskribatzeko. 2001eko irailaren 11ko atentatuen harira, komunikabideen paperak interesa piztu zidan. Egunkaria nire habitat naturala da. Baina anitz ikasten dut irratian eta telebistan egiten ditudan kolaborazioetan: mikrofono bat aurrean izatea edo idazten ditudan artikuluak sinatzea erantzukizun handia da. Horregatik esfortzu berezia egiten dut argitasunez arrazoitzeko, errealitate baten ertz guztiak kontuan hartu eta ikuspuntu desberdinak egon daitezkeela ulertuz".

"Beldurra da gizartea kontrolatzeko arma"

Kazetaria eta analista politikoa da Sara González (Sant Celoni, Katalunia, 1985). Disidentziaren kriminalizazioa agerian jarri du argitaratu berri duen *Per raó d'Estat* (Estatu arrazoiagatik) liburuan, Espainiako Estatuko estolden egitura politiko, polizial, judizial eta mediatikoetan barrena murgilduz.

SAIOA BALEZTENA JORDI BORRÀS

Liburua idatzi ondotik argi gelditu al zaizu nor dagoen Espainiako Estatuko estolda egituren atzean?

Argi gelditu zaidana da ezin dela ziurtatu hierarkikoki lan egiten duen pertsona talde jakin bat dagoenik, bulego batean estatuaren funtsak babesteko asmoz noren kontra, noiz eta nola jokatu erabakitzen duena. Hala izango balitz, erraz detektagarria izango litzateke. Froga da sistema horren antzekoena dela "polizia patriotikoa" izenekoa, eta komisarioen arteko guda baten ondotik identifikatua izan dela.

Zoritxarrez, sistema dezente konplexuagoa da, hainbat elementu dituen amarauna: ultra-kontserbatzailea den joera politiko bat; erakundea desagertuta ere bere horretan jarraitzen duen ETAren terrorismoaren kontra 40 urtez indartutako salbuespenezko legedia; mahuka zabaleko kultura poliziala; kontakizun polizialak onartzeko joera duten epaileak eta bozgorailu gisa jokatzen duen sistema mediatikoa.

Zein da egitura horren erronka?

Estatu arrazoientzat mehatxua direla uste duten mugimendu, ideologia politiko eta fenomenoak desaktibatzea. Erran daiteke hiru direla defendatzen dituen aspektuak: lurralde batasuna, ordenaren eta agintearen printzipioa eta sistema kapitalista babestea. Horretarako, ekintza polizial eta judizialen bitartez iritzi publikoa baldintzatzen saiatzen dira. Beldurra da gizartea kontrolatzeko arma.

Disidentzia zigortzea kontu berria ez dela aldarrikatzen duzu. Zenbateraino uste duzu, Katalunian, errepresioaren errealitatearen ezagutza prozesu independentistaren harira soilik zabaldu dela?

Distantzia fisikoak eta denborazkoak errealitatea distortsionatzen du, are gehiago gizartearen memoria motza izan ohi denez. Kataluniako gizartearen gehiengoak denbora luzez ez du euskal gatazkaren berririk izan, terrorismoaren kontrako borrokarekin justifikatu baita hamarkadetan ezker abertzalearen eta anarkismoa bezalako mugimenduen kontrako jazarpena. Eta Euskal Herrian egindakoaren gaineko kontzientziarik ez da hartu Kataluniako gatazkan aplika-

"Hedabideek akusazioaren kontakizuna egia osotzat jotzen dutenean kontakizun jakin bat mamitzen laguntzen dute".

tu den arte. Orduan piztu da denboran errepikatzen den eredu bat eta salbuespenezko legedi bat dagoenaren gaineko kontzientzia, desberdintasun erabakigarriarekin: Kataluniako gatazkan ez dela erakunde terroristarik egon.

Martxelo Otamendirena eta Iñaki Abadena dira euskal disidentziaren testigantzak zure liburuan. Nola joan ziren elkarrizketak?

Hagitz hunkigarriak eta paradigmatikoak izan ziren, hain zuzen ere, aipatzen dizudan eredu hori ulertzeko. Euren sufrimendua ulertzeko ateak ireki dizkidaten heinean liburuko testigantzen eskuzabaltasunaren adibide argiak dira biak. Otamendi sekulako komunikatzailea da eta gai da, hamazazpi urte pasa direnean ere, bizitako sarrakioa zehatz-mehatz azaltzeko. Abadek, oraindik kondena betetzen ari denez, bere egunerokotasunari aurre egiteko inpotentzia eta etsipena helarazten ditu.

Zein irakurketa egiten duzu eurek elkarrizketatu ondotik?

Hasteko, mota horretako operazio baten biktima izateak talka eragiten duela, eta erreparaziorik ez dagoela. Otamendiren torturatzaileei ez zaie kargu hartu; Polizi kontakizunak zein sumarioak azukre-koxkor baten moduan desegiten dira. Bertzalde, terrorismo akusazioaren ostean bertzelako asmoak daudela eta interes politikoagatik ETAren mamua bizirik mantendu nahi dela. Eredu hori Kataluniara bideratu da azkenaldian, adibidez, CDRetako aktibistak indarkeriarekin edo terrorismoarekin lotuz, Tamara Carrascorekin gertatu bezala.

Hedabideak estolden parte direla aipatu duzu.

Hedabideek akusazioaren kontakizuna egia osotzat joz titularrak hedatzen dituztenean eta poliziaren susmoak "ustezko" gisa azaldu ordez gertaera gisa aurkezten dituztenean iritzi publikoan kontakizun jakin bat mamitzen laguntzen dute. Zalantzarik gabe. Eta gero, kontakizun hori desmuntatzen denean kazetariek absoluzioari ez badiote akusazioari eman zioten garrantzia bera ematen bidegabekeria bikoitza eragiten dute.

Espainiako Barne Ministro ohi Jorge Fernández Díazekin ere solastu zara. Nola joan zen?

Galdetu beharreko guztia galdetu nion eta berak dena erantzun zuen, nahiz eta nire planteamenduarekin ados ez zegoen. Eta noski, bere asmoa izan zen defendatzea, lehenik eta behin bere buruaren garbitasuna, eta gero ekintza polizial eta judizialarena.

Agerian utzi duzu Euskal Herriko eta Kataluniako independentismoa eta Podemosen ingurua jazarri dituztela estoldek. Elkarren artean politikoki nahikoa kooperatu dutela uste duzu?

Inolaz ere ez. Errepresioak eta sare berdinaren biktima izateak elkartasuna sustatu beharko luke, borroka alderdikoiarengatik egon ez dena. Aldiz, estoldek independentismoaren kontrako auziak aktibatu dituztenean, Podemos oin-puntetan igarotzen saiatu da, bereziki Moncloan gobernatzen ari direnez geroztik. Eta alderantziz, Podemos urakanaren begian egon denean. Azken urteetan *statu quo*a gehien astindu duten bi mugimenduen arteko borroka konpartituari zukua atera ordez, bakoitzak bere onura lehenetsi du bertzearen kalterako. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

ESAN sindikatua, gazte donostiarren inguruan:

“Unga unga sniiiiifff grrrrrr bum bum aarghrg”

SINDIKATUKO KIDEEN PRENSAURREKOA ARKAUTEKO BASOAN

“Aisialdirako eskubidea defendatzeagatik gu denon osasuna arriskuan jartzeko prest dauden gazteen eta gu denon osasuna proportzionaltasun pilulez defendatzen duten polizien” artean –Josu Erkoreka ETBko albistegien aurkezleak azaldu bezala– liskarrak izan dira azken egunetan Donostian. Gertatutakoez galdetuta Euskal polizien Sindikatu Abertzale(sic) Nazionalsozialista (ESAN) talde armatuko bozeramaile Jabo Katxak adierazi duenez Castro Urdialeseko egoitzatik, “Uuuuuuh aaaaaah jotake pinpanpun oreina aarghrg grrrrrr unga sniiiiifff unga”. Hitz horiengatik oso eskertuta azaldu da Josu Erkoreka. 53 furgo bila joan eta kontzesionariotik bueltan ondorengoa gaineratu du: “Istiluen atzean talde antolatuak daude, Martin Garitano Ernaiko kidearen sokako gazte traperoak, etxeratze agindua zer den sekula jakin ez dutenak”. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Gure Tinder analogikoa



Negazionismotik niggasionismora

Pfizer txertoa hartu dutenen %99k EAJ bozkatuko du datozen hauteskundeetan

Gainerako %1ak adierazi du bigarren txertoa hartzean erabakiko duela bozka nori eman. Pfizer txertoa hartu duten 23.147 herritarrek lehendik ere bazuten EAJren karneta –LABIkoei gezurra esan zien oñatiar batek salbu–, baina hori “kasualitate hutsa” dela adierazi du Gotzone Sagardui EAEko Osasun sailburuak, Basurtoko ospitalearen atarian eman duen prentsaurrekoan, Eduardo Maiz zuzendariak ate birakarian bueltaka jarraitzen zuen bitartean. Santa Marina ospitalera joatekoa zen gero Sagardui, beste kasualitate bat azaltzera. Azpeitian egin den txertaketa masiboan ziztatu zituzten 37 gazte obrero sozialistak, ondoren Batzokira joan ziren zuzenean kalamare batzuk jatera eta beste 37 Gizakerren eta 3Koma ekoiztetxean hasi dira lanean. ●

ARGIA Azoka

Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diozu **Bilboko Mbolo Moye Doole** elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

Eskaerak egiteko:

943 37 15 45

argia.eus/azoka

ARGIA

OPARITU ARGIA

ZAINDU NAHI DUZUN HORRI

Puska dezagun izotza

Oharretan adierazi
oparia dela eta urtarriletik
aurrera hasiko gara
aldizkariak bidaltzen.

943 37 45 15 WWW.ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA